ttipi-ttapa
230. zenbakia • 1998ko maiatzak 21 • XVII. urtea



## UEMA Eguna Arantzan

# Euskaraz bizi diren herrien besta

*Igandean izanen da Arantzan Udalerri Euskaldunen besta haundia...*

☞ 4

*... eta ospakizun hori probextuz, bere aurkezpen ofiziala eginen du TTIPI-TTAPA TELEBISTAK.*

☞ 30



**Elkarrizketa:**

### Javier MARITXALAR

*«Kartak egunero hartzeko denok dugun eskubidea kendu nahi digute»* dio Posta zerbitzuan hogei urte daramazkin lesakarrak. Berriki, Espainako Gobernuak prestatutako Posta Plan berriaren aurka azaldu dira postariak, geldialdiak eginez. *«Baserrira karta bat eramatea ez da errentagarria egundaino, baina prezio egokiak dituen posta publikoa defendatzen dugu».*

☞ 3

**6** Iritzia: **Motoredun ibilgailuei mendian ibiltzeko mugak jarri behar zaizkie?**

Galdera hori egin diogu Elizondoko mendizale bati, Leitzako motorzale bati eta Berako alkateari.

**28** Kirola:

**Aimar Olaizola**

**Goizuetako pilotaria**

"Atzelariek ez dute pilota entregatzen, eta jokoan sartzeko koadro batzuk atzerago aritu behar dut orain".

**TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!






*Ongi etorria*
Golf *berrira*




Zerbitzu Ofiziala

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea
✆ 948 450354 / 948 450759
DONEZTEBE

DATUAK..........

❖ *Javier Maritxalar lesakarrak ia hogei urte daramazki postari lanean: 15 Lesakan, 1 Donostian eta 3 Beran.*

❖ *Gobernuak prestatu duen Posta Plan berriaren aurka mobilizazioak burutu dituzte postariek apirilean.*

❖ *Bere ofizioan gehien gustatzen zaiona «jendearekin dagoen tratua da, herrietan batez ere».*

❖ *Eskualdean, Nafarroako partean, 50 bat langile ari dira Posta zerbitzuan: Bortzirietan 13; Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin 15; Malerreka, Sunbilla eta Bertizaranan 15 eta Leitzaldean 6.*

TESTUA: **AITOR AROZENA**
TESTUA: **KARMELE TOLOSA**

☞ **Javier MARITXALAR** *Postaria Beran*

# "Kartak egunero hartzeko denok dugun eskubidea kendu nahi dute"



«Prezio egokiak dituen posta publikoa defendatzen dugu»

**APIRILEAN ZENBAIT LAN GELDIALDI EGIN DITUZUE *CORREOS* ZERBITZUAN. ZEIN DIRA POSTARIEN ESKARIAK?**

Espainiako Gobernuak posta zerbitzuaren pribatizaziora eramanen duen Posta Plan berria martxan jarri nahi du. Pribatizatuz gero, badakizu zer den, errentagarritasuna bilatzen da eta errentagarriak ez diren zerbitzuak alde batera utzi edo garestituko dira. Guk prezio egokiak dituen posta publikoa defendatzen dugu.

**ZEIN DIRA ERRENTAGARRIAK EZ DIREN ZERBITZUAK?**

Inguru honetan, adibidez, kartak baserrietara eramatea. Hiri batean errexa da, portalean sartu eta ehun karta uzten ahal dituzu, baina baserrira igual karta bakarrarekin joaten zara. Hori ez da errentagarria egundaino, baina gu jende guziak bere kartak egunero hartzeko eskubidearen alde gaude, errentagarriak ez diren zerbitzuak errentagarriekin konpentsatuz. Horregatik gara zerbitzu publikoa.

**LANA ERE ARRISKUAN IKUSTEN DUZUE?**

Hori errentagarritasun soil-soila bilatzearen ondorioa da. Zenbat eta langile guttiago, orduan eta errentagarriagoa. Plan hori ateratzen bada, aitzin-erretiroak-eta berehala etorriko dira.

**ORAIN ARTE EGIN DITUZUEN MOBILIZAZIOEN BALORAZIOA EGIN DUZUE?**

Bai, hagitz ona. Nafarroan ia postari guziak gelditu dira. Gainera, lehen aldiz Nafarroako Posta Zerbitzuko sindikatu guziak (CCOO, UGT, CSI-CSIF, CGT eta LAB) plataforma bakar batean bildu dira. Horrek ere zerbait erran nahi du.

**ETA ETORKIZUNERA BEGIRA, ZERBAIT GEHIAGO EGITEKO ASMORIK?**

Apirilekoak abisu hutsa izan dira, proiektu horrekin ados ez gaudela erakusteko. Gobernuak datorren hilabetean erabakiko du plana aitzinera ateri edo ez. Horren arabera ikusiko dugu zer egin.

**ZUEN IDATZIETAN POSTA ZERBITZUAK IZEN ONA EDO OSPEA GALDU DUELA DIOZUE...**

Jendeak denaren errua *'Correos'*eri botatzen dio eta hori ez da horrela. Guk jasotzen dugun guzia bidali edo banatzen dugu eta guzia ailegatzen da. Kanpotik gaizki ikusten gaituzte, baina *Correos* ongi dabil, egitan. Oraingo geldialdiekin ere zeraerraten ziguten, *'zuek diru gehiago eta lan guttiago nahi duzue'*, baina mobilizazio hauek ez dute soldatarekin zerikusirik. Egia da gestio txarra izan dela urteotan eta estatuarenak izatetik erakunde enpresariala izatera pasatu gara ia enteratu gabe.

*"Baserrira karta bat eramatea ez da errentagarria egundaino, baina jende guziak bere kartak egunero hartzeko eskubidearen alde gaude."*

**Badira bi urte baino gehiago aranztarrek euskaraz jasotzen dituztela Udaleko agiri guziak. Bi urte baino gehiago erdarazko agiriei Udaleko ateak itxi zizkiotela. Izan ere, Udalerri Euskaldunen Mankomunidadeko partaide bihurtu baitzen Arantza 1996ko azaroan. Igande honetan ospatuko da herri horien besta haundia, eta Arantza euskaltzale guzien bilgune bihurtuko da egun batez. Gonbidatuta zaudete.**

TESTUA: *ASIER GOGORZA*
ARGAZKIAK: *KARMELE TOLOSA*



## UEMA Eguna Arantzan

# Euskaraz bizi diren herrien besta

Ugari da gure eskualdean goizetik gauera euskara bertzerik erabiltzen ez duen jendea. Zenbakiak maite dituztenek jakinen dutenez, Baztan eta Malerreka-ko herri ttikietan, Leitzaldean, Saran, Senperen eta baita Bortzirietan ere euskara da mintzaira nagusia, eguneroko bizimoduan bederen. Herri gehienetan bada, ordea, hutsunerik. Izan ere, euskara hutsez bizitzea galerazten diguten oztopoak errez antzeman baitaitezke oraindik. Horietako bat, nabarmenetakoa, erdarak Herriko Etxeetan duen pisua da. Zinegotzi, alkate eta Udal langileak euskaldunak izan arren, idatzi gehienak erdara hutsean erabiltzen dira, ohitura eta errextasun kontuen aitzakian. Zenbait herritan, aitzitik, egoera horrekin konformatzen ez eta euskararen aldeko apustua egin dute Udaletik bertatik. UEMAren partaide bihurtu dira.

### "Kontradikzio bat zen paperak erdaraz izatea"

Bi urte terdi joan dira Arantza Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zenetik. Gaur egun 32 dira Euskal Herri osoan UEMAko kide diren herriak, Leitza, Goizueta, Zubieta eta Arantza hoien artean. Bi baldintza bete behar dira UEMAko partaide bihurtzeko. Batetik, biztanleen %80a baino gehiago euskaraz mintzatzea, eta bertzetik, Udalak jarrera positiboa erakustea, hau da, euskara hutsez funtzionatzeko gogoa izatea. Arantzak bi baldintza hoiek hasiera-hasieratik bete zituen. Gutti izanen dira Euskal Herrian Arantza baino euskara gehiago aditzen duten herriak, eta Udalean euskara erabiltzen zen lehenagotik ere, hitzezko harremanetan bai behinik behin. *«Hemen plenoak-eta beti izandu dira euskaraz, baina zinegotziek eta herritarrek jasotzen zuten dokumentazio guzia erdara hutsez izaten zen garai batean. Aktak ere oraindikan erdaraz egiten ziren…»* dio Joxe Ramon Amoros herriko alkateak. UEMAn sartu



zirenetik, berriz, Arantzako Udalaren akta guziak euskara hutsean irakur daitezke, eta bertan egiten dituen dokumentu guziak ere (erakundeei nahiz herritarrei bidaltzen zaizkienak) euskaraz dira. Gainera, Udalean jasotzen diren paper guziak euskaraz izan daitezen esigitzen dute, erdara hutsean datozenak bueltan igorriz. Xabier Zugarramurdi zinegotziak erabaki hori zergatik hartu zuten azaldu digu garbi aski: *«azken finean gu euskaraz solasten gara beti, euskaraz funtzionatzen dugu, eta kontradikzio bat zen paperak erdaraz izatea. Gu euskaldunak gara eta euskaraz egitea nahi dugu, ez dugu zertaz erdarazko paperik hartu beharrik».*

### "Ez dakit ongi eskribitua izanen den..."

Oraindik orain, halere, zail xamarra suertatzen omen zaio zenbait herritarri euskaraz irakurri eta idaztea, ikasketak erdaraz eginak dituzten pertsona nagusiei, batez ere. *«Orohar drama haundirik gabe hartu du jendeak, baina dudarik gabe, hori aitortu behar da, paper baten aitzinean hemengo jendea hobeki defenditzen da erdaraz baldin bada».* Joxe Ramonek erran digunez, ordea, poliki-poliki lotsak kendu eta Udalarekin harremanak euskaraz izatera animatzen ari omen da jendea. *«Beti izaten da harako kezka hori, "ez dakit ongi eskribitua izanen den...", bainan normaltasunez jokatu ezkero dena gaindituko da».*



**«Azken finean gu euskaraz solasten gara beti, eta kontradikzio bat zen paperak erdaraz izatea. Gu euskaldunak gara eta euskaraz egitea nahi dugu, ez dugu zertaz erdarazko paperik hartu beharrik».**

Normaltasun hori lortzeko bidea ez da batere xelaia izanen, hori seguru, eta horrexegatik ospakizunetarako ere tartea bilatu behar da noizean behin. Igande honetan, erraterako, euskaraz bizi diren herrien bestara bilduko da hainbat euskaltzale, duela lau urte Leitzan egin zenean bezalaxe. Arantzako egoera ezagutzera ematea da UEMA Egunaren helburuetako bat, hau da, euskaraz funtzionatzeko erabakia hartu eta aitzinera eramatea posible dela erakustea. Xabierren ustetan badago inguruan eurek hartu duten bide berdinetik abiatzeko gai den herri franko. *«Ea animatzen diren»* dio. Bestarako ezik, esperientzien elkartrukerako ere gunea izanen da, beraz, Arantza igande honetan.

### TTIPI-TTAPA TELEBISTAren aurkezpena

Bertzalde, jendearen interesa biztuko duen ekitaldi berexia ere gauzatuko da eskoletan, TTIPI-TTAPA TELEBISTAren aurkezpena Bortzirietan, hain xuxen. Lamixine Berako Antzerki Taldearekin elkarlanean prestatu duten irudi eta antzerki muntaia ikusteko modukoa izanen baita, dudarik gabe. ■

## egitaraua

**11,00etan:** Kalejira. Zizkuitz txaranga eta Arantzako trikitilariak.

Nafarroako artisauen erakusketa.

**11,30etan:** Ekitaldi instituzionala Udaletxean: Euskararen Aldeko Manifestua sinatuko dute Euskal Herriko hainbat alkatek.

**12,30etan:** TTIPI-TTAPA telebistaren aurkezpen ofiziala eginen da eskolan.

**14,00etan:** Bazkaria pilotalekuan, Zizkuitz txarangak alaituta.

**16,30etan:** Kollin´s Clown. Haur-antzerkia.

**18,30etan:** Erromeria: Imuntzo eta Beloki.

EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTUA

**Jakitea eta maitatzea ez da aski, euskararen bizi gordetzeko:** lehen mende batez bezenbat gal dezake orai mintzaira batek bortz urtez.

Itsasoak eta lautadak lurra jan ukan baliote bezala, euskara mendirat jin zen. Mendiak eman zion babes eta hazkurri. Erraiten da mendian direla zuhaitzak ederren luzatzen; alabaina, zuhaitz baten parabolak ez du biltzen ahal, egun euskararen bizi-larria.

**Egun ez dago ihes-lekurik mintzairendako.**

Eskola, telebista, administrazionea, hitz batez, gizartearen adarrak oro, helduak dira bazterrik zokoenetaraino. Menditik nora doake, gure mintzaira?

Urtu eginen litzateke putzuño bat eguzkitan bezain fite, baldin eta guk azkartzen ez badugu.

**Euskarak oraiko Euskal Herriaren bizimoldea erran behar du.**

Bizi diren zer guztiak kanbiatzen dira. euskarak berak ere, mendean mendeko aitzinamenduak bereganatu dituelakotz iraun ahal ukan du egundaino. Eta orai, putzu denak erreka bilakatu behar du, itsasorainoko ibai egin arte.

**Mendeak eskatzen dituen kanbiamenduak hartu behar ditu euskarak.**

Baina mintzairak ez dira deus mintzatzailerik gabe. Euskarak gizarte modernoaren eskakizunak bete behar ditu, euskaldunok gizarte horretako ume garelakotz. Guti bada guti, gure herrietako zerbitzuak euskalduntzen saiatu behar dugu.

Hastapen guziak xuhur direla, errana da. Ez dugu beraz harritu behar, euskarari, haste honetan, xuhurki emaiten badiozkagu bere orenak. Baina atetik barnerat sartzen baldin badugu, gaixtoena egina duke gure mintzairak.

**Euskarak ikasiko du, gure laguntzaz, barne orotan jokatzen.**

Koldo Izagirre






**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.800 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 948 63 11 88
Faxa: 948 63 12 91
**Internet:**
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Josepa Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Muruberria, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Franc Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Txema Aldabe, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...
**Inprimategia:** Gertu.
***ttipi-ttapa***k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Motoredun ibilgailuei mendian ibiltzeko mugak jarri behar zaizkie?

## Mendizaleak eta motorzaleak ez dira ongi moldatzen normalki



Angel TRANTXE
Mendizalea. Elizondo.

Neri nahikoa izorratzen dit motoak-eta mendian barna ibiltzea, batez ere oinez gaten direnekiko errespetorik ez dutelako. Gainera pistetatik kanpo ere sartzen dira maiz, juxtu-juxtu oinezkoak ibiltzeko tokia dagoen xendetan barna.
Duela gutti motorzale koadrila batekin ika-mika izan genuen, xenda batean barrena gure atzetik gaten ziren , eta aitzintzeko lekurik ez zegoenez bulkaka heldu zitzaizkigun ia-ia.
Mendira ateratzen zara arnasa hartzeko, eta *katxarro* horiekin pasatzen dira kea botaz... Koadrilan gaten direnean, gainera, garbi dago zola hondatzen dutela, arrastoa uzten baitute. Gero, ateratzen duten soinua ere ez da batere atsegina. Mendizaleak eta motorzaleak ez dira ongi moldatzen normalki.
Bertzalde, Aritzakun aldean Frantzia aldeko 4x4 aunitz ikusten da. Han debekatua dutenez hemengo mendiak inbaditzen dizkigute. Nere ustez hori nolabait erregulatu beharko litzateke.
Hala ere, ez dut uste oraingoz kezkatzekoa denik motorzaleen eragina.

## Gehienbat artzaiekin izaten ditugu ika-mikak, ardiak ikaratzen ditugula-eta



Oskar ARIZTIMUÑO
Motorzalea. Leitza.

Zenbait asteburutan koadrilan joaten gara trialeko motoetan ibiltzera. Ni gutxitan joaten naiz halere. Joatekotan Goizueta eta Berastegi aldera joaten gara pistan barrena.
Pistatik kanpo ibiltzea debekatua dagoela aditua nuen lehenagotik, baina gu aritzen garen motoekin... askotan pistatik kanpo ere ibili ohi gara. Pista errexetan ez gara ibiltzen normalean, traktore-bideetatik joaten gara gehienetan, baina belarsorotan ere ez gara sartzen.
Bestalde, gaur egun ez dago inor mendiko bideak-eta kontrolatzen.
Mendizaleekin topatu izan gara mendian, baino ez zaizkigu behin ere kexatu. Soinu pixka bat ateratzen dugu, baino ez zaie gehiegi inporta. Gehienbat artzaiekin izaten ditugu ika-mikak. Batetik, ulertzen ditut beraien kejak, baino gainerakoan nik uste dut moto batzuk gauza baterako izaten dira eta beste batzuk beste baterako.
Gauza da herrian ezin garela ibili, herria delako, eta mendira joan eta han artzaiek esaten dute ardiak ikaratzen ditugula eta ez dakit zer...

## Orain ibiltzen diren bezala, behinik behin, denentzako traba dira



Manuel IRIARTE
Berako alkatea

Momentu honetan, legez, bi metro terdi baino zabalagoak diren pistetatik bakarrik ibiltzen ahal dira motoredun ibilgailuak, baino gaur egun ez du inork hori kontrolatzen.
Orain ibiltzen diren bezala, behinik behin, denentzako traba dira: animaliak izitzen dituzte; jendea ere mendian barna lasai joaki bada ondotik pasatzen dira ziztuan... eta gainera normalki konpetizio gisa ibiltzen dira, nahiz eta hori guztiz debekatua dagoen.
Lehengo egunean ikusi nuen Beran ere 4x4 kotxeak paratu dituztela alokatzeko, baino normalean bertze aldekoak izaten dira mendian barna kotxeetan ibiltzen direnak.
Berako Udalak zonaldeko Udalekin kontaktuak hasi ditu eta Udalbatzarrak ere joan den astean ukitu zuen gai hori. Gure intentzioa da mendiko pistak sailkatzea. Orduan aukera izanen da pista konkretuetatik ibiltzeko, baino baimen berezi batekin bakarrik. Legeak dioenez sorotan zehar ibiltzea debekatua dago, eta pistatik kanpo aparkatzea ere bai, tokia hortarako espreski prestatua ez bada.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 16etatik 20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## BOTA BERTSOA



### *Ilargian hotelak*

**Beñat TABERNA (Berako Betso Eskola)**

Neurria: Zortziko Haundia

*Bidaiariek egin nahi dute*
*hotela orbita kanpoan*
*ilargia da ikuspuntu ta*
*momentu hontan gogoan*
*gela haundiak ta erosoak*
*lurra ageri leihoan*
*oporretara joango gara*
*ilargira hurrengoan.*

*Unibertsoa izan nahi dute*
*dena loturik katean*
*hoiek ez dire ez gelditukc*
*dena izan arte oinpean*
*planeta oro menperatzea*
*nahi lukete behin hastean*
*behin ukitu ta pentsatzen dute*
*dena dutela menpean.*




## IRAKURLEAK MINTZO

**Marihuana legalizatu!**

Marihuanaren auziak Baztanen piztu duen eztabaidan gure hausnarketak eta salaketak herritartu nahi ditugu.

Marihuanaren kontsumoa, lehenik eta behin, norberak gizaki libre eta heldu gisa egiten duen hautua da. Bereziki azpimarratu behar da, honen inguruan Bilboko 7. instrukzio epaitegiak adierazitakoa, marihuanaren kontsumoa, askatasun printzipioaren adierazle nagusitzat hartzen baitzen. Hildo beretik, eta Baztango Batzar Orokorrean isilarazi eta ezkutatu zenaren aurka, marihuanaren autokontsumoa legeztatua da, beraz, lur komunaletan marihuana landaketak ekar zezakeen lege haustearen aitzakia, bere pisuz erortzen da. Honela bada, Baztango Batzar Orokorraren jarrera eta erabakia gaitzesten dugu. Halaberean, euren utzikeria eta arduragabekeria, bistan baita gehienen ezagutza gai honekiko hutsala izanda ere, abstenitu beharrean itsuki aurka bozkatu zutela.

Bidenabar, azpimarratu nahi dugu marihuana kontsumoa gero eta zabalduagoa dagoela gure gizartean. Bere kontsumoa sozializatu den neurrian, berarekiko oneritzia zabaldu da, kasurako Montxo Armendariz zine zuzendari eta Aurora Beltran abeslariaren adierazpenak aipa ditzakegu.

Honekin batera, arreta berezia eskaini nahi diogu, Batzar Orokorrean eginiko eskariak hainbat hedabidetan piztu duen morboari, gazteen aurka egiazko sorgin-ehiza piztuz. Hedabideetan emaniko trataerak, Mari Taldea kolektibo bezala eta bertako kideak bakarka kriminalizatzea ekarri du; beraien aurkako jazarpena erabatekoa izan da.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi, marihuana landaketa bat dela-eta baztandar bat epaitu dutela, bere aurka pozoin franko ixuriz hainbat hedabidetan.

Zentzu honetan gure atxekimendua erakutsi nahi diogu, berari, eta Mari Taldea kolektiboari.

Marihuana eta gainerako gai psikoeragileen inguruan dauden tabuak hautsi behar dira, eta eztabaida azaleratu. Arestian erran bezala, kontsumoa norberaren hautua da, neurri horretan, saiatu behar duguna, kontsumo hori heldutasunarekin egitea da, informatua eta egiten denari buruzko erabateko jabetasunarekin. Aitzitik, ilunkeriak, isiltasunak, kriminalizazioak aurkako jarrerak ekartzen dituzte, hain zuzen, ezezagutzan oinarrituriko jarrera, kontsumo horiek dira benetan kaltegarriak.

Maria Legalizatu!

BAZTANGO JARRAI

**"¡Que se vayan al Baztán!"**

"Con esto lo único que consiguen es que Irún parezca un pueblo. ¡Que se vayan al Baztán! ¿Cómo pueden comparar los sanmarciales con los sanfermines?"

Irunen, martxoaren 9an, Irun eta Hondarribiko Alardean emakumeek duintasunez parte hartzearen aldeko manifestazioan ginenok –Ituren eta Zubietako neska-mutil joaldunak barne– halakoak entzun behar izan genituen. Eta kontent, ez baikintuzten iraindu eta mehatxatu besterik egin, gehiago egiten ere badakite eta. Seguru problema Tradizioaren kontzeptu desberdinak direla?

Irungoa naiz, baina amaren aldeko familia guztia nafarra dut, gerra zela-eta Iruneratua. Gure osaba, mutila zenez eta Alardea oraindik sakralizatua ez zegoenez, *hatxero* gisa ateratzen hasi zen. Bere arrebek, berriz, ez zuten kantinera ateratzerik izan, zergatik eta nafarrak zirelako. Gezurra dirudien arren, Alardea, gero eta zabalago izan beharrean, gero eta itxiago da. "Tradiziozaleak" parte hartzeko karnet moduko zerbait eskatzea pentsatzen hasi dira. Emakumearen partaidetza eskatzen dugunok Alardea denontzat dela pentsatzen dugu, ez bere burua *Irunés de Toda la Vida*-tzat hartzen duenarena soilki.

Horregatik, Lesakako Udalak kanoiak halako jendailari uzteko prest dagoela enteratu naizenean, amorruz eta harriduraz idaztea erabaki dut. Kanoiak eraman behar omen dituzten horiek dira "Tradizioaren" izenean nafarrak ez ezik Emakunde, Eusko Legebiltzarra, Arartekoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Herriko Auzitegi Gorena eta, orohar, arrazoia eman ez dieten guztiak batere lotsarik gabe iraindu dituztenak. Lesakako Udalari bere ebazpena berriro pentsatzeko eskatzen diot, besterik ez bada ere sententzia batek "tradiziozaleen" argudioak bertan behera utzi dituelako, eta, beraz, laguntza ematea ilegala izan daitekeelako.

XABIER KEREJETA (IRUN)

**Bertizko oihanaz:**

Bertizen martxoaren 31n eta apirilaren 1ean egindako ihardunaldiei buruz gure iritzia eman nahi dugu.

1. Ihardunaldi hauek positiboak izan baziren ere, alde ezberdinen artean egindako elkarlan gisa, ondorio batzuk bertzerik ez ziren lortu. Administrazioak azken urteetan ez du mendia hobetzeko interes haundirik erakutsi. Bertzalde, jakin beharko lirateke ordenazio plana aurrera ateratzeko beharrezkoak diren diru sarrera eta irteerak.
2. Bertizko mendian lan hauek egitekotan 1993an egindako ordenazio planaren arabera egin beharko lirateke. Halaber, badaude zehaztu gabeko puntu batzuk. Argitu beharko da oihana ateratzeko lanak nola egin behar diren (bidez, kablez...), non, eta lan hauen kostua.
3. Gaur egun Nafarroako Gobernuak ez dauka mendiaren bide ona ziurtatzeko beharrezko tekniko eta mendizainik. Eta hauek ezinbestekoak dira lanak hasi aitzinetik.
4. Gobernuak gizartearen adostasuna lortzeko Bertizko Parke Naturala gizartean gehiago integratu beharko luke, Bertizarana, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako herriei partaidetasun gehiago emanez.

AURKIDI TALDEA

KOLABORAZIOAK

☞ **Garbiñe LEIZA** *Iturendarra*

# Nafarroa izateagatik EHUn diskriminatuta



Nafarroakoa naiz, eta euskalduna. Horregatik Unibertsitatean Enpresa ikasketak euskaraz egitea erabaki nuen orain dela urte batzuk. Donostian, EHUn, euskaraz egin baitzitezkeen ikasketa hauek eta Iruñean ez (erdaraz bakarrik egin daizteke gaur egun ere). Beraz, garbi ikusi nuen: Donostian egitea. Ez nuen batere arazorik izan.

Orain, berriz, Magisteritza egin nahi dut, musika berezitasuna, hain zuzen ere. Informazioa eskatzen hasi eta berriz ere Iruñean egiteko aukera dut, baina erdaraz, edo bertzela Bilbon, euskaraz. Orain ere garbi daukat: Bilbon.

Hara non nire harridura! Aurre-inskripzio epeak galdetzeko Leioara deitu eta hauxe entzun behar: ...*"de todas formas no se te va a admitir porque eres navarra y en Navarra se puede hacer esa carrera..."*. *"Bai, NUP-en, baina erdaraz. Eta nik euskaraz egin nahi dut, NIRE ESKUBIDEA DA"*, edo hori uste nuen nik behinik behin.

Beno, batetik bertzera ibili ondotik, berriz ere toki berera; beraiek ezin dutela deus ere egin, Legeak hori dioela. Ezin dut ulertu, buelta eta buelta eta EZIN DUT ULERTU!

Nafarroakoa izateagatik karrera bat erdaraz egitera beharturik al nago? Nafarroako Gobernuaren euskararekiko jokaera lotsagabeagatik (eta batez ere Unibertsitate mailan) nik erdaraz ikasi behar dut, jakinda Bilbon euskaraz irakasten dela.

Jakin ezazue ez dela karrera berdina magisteritza musikala erdaraz ala euskaraz, eta uste nuen aukeratzeko eskubidea nuela, USTE NUEN!

Baina ez; alde batetik Nafarroako Gobernuak ez du inolako interesik euskara Unibertsitatean sartzeko eta bertzalde, EHUan (UPVn) ez dute nire eskaera onartzen *"legeak honela daude, zu nafarra zara eta Nafarroan moldatu zure arazoa..."*.

**Nafarroako Gobernuaren euskararekiko jokaera lotsagabeagatik (eta batez ere Unibertsitate mailan) nik erdaraz ikasi behar dut, jakinda Bilbon euskaraz irakasten dela. Jakin ezazue ez dela karrera berdina magisteritza musikala erdaraz ala euskaraz, eta uste nuen aukeratzeko eskubidea nuela, USTE NUEN!**

Hau da nire ondorioa: lege horrek dioena DISKRIMINATORIOA da erabat eta nik, nafarra izateagatik, ez dut magisteritza musika berezitasuna euskaraz egiteko eskubiderik.

Zuek ulertzen duzue?

Ez al da Espainiar Konstituzioan agertzen den lege bat DISKRIMINAZIO EZA?

☞ **Jon ABRIL** *Beratarra*

# Euskara lau zirriketan



Anitzetan ibili behar izan nuen batetik bertzera autobusez. Institutura lau urtez joan etorria egin nuen Beratik Mugairera, eta Lekarotzera geroago. Bilbora ikastera joan nintzenean, astelehen eta ortziraletan Bera-Bilbo-Bera ibilbidea egiten nuen, eta Bilbotik Leioarako tartea autobusez ere egiten nuen, egun batean bai eta bertzean ere bai. Irundik Bilborako tartea ere urtebetez egin nuen egunero-egunero autobusean. Ordu anitzetan ibili izan naiz autobusean. Orain arte zerbaitekin lotzekotan autobusa lo kuluxkekin eta ikasketekin lotuko nuke. Inoiz ez zitzaidan otu euskarak eta autobusak loturarik izango zutenik -egia baita txofer anitzek euskaraz piperrik ere ez dakitela, baina orain, lanak hala behartuta, biak elkartu ditut.

Hurrengo egunetan Nafarroako iparralde eta erdialde guztian autobus bat ibiliko da herriz herri euskararen inguruko erakusketa bat eramaten. Bertan Estitxu Fernadez -eskerrik asko zure laguntzagatik- bertsolaria aktore lanetan ikusi ahal izanen dugu. Horrezaz gain, euskarak Nafarroan bizi duen egoeraz ohartu ahal izanen gara, EKBren eskutik. Denok badakigu nola dagoen euskara Nafarroan, baina guttitan oroitzen gara horretaz. Euskara hilzorian dago Nafarroan. Ikastolak baditugu (25 urte egitera doanean legez kanpo oraindik Berakoa), eskola publikoetan D ereduan ikasterik badago, Ttipi-ttapa irakurtzerik badugu -ongi etorri Ttipi telebista!-, euskaltegiak, Xorroxin... Baina zenbatetan galdetu duzue zein den hauen egoera? Bertako langileen lan baldintzak nolakoak dira? Eta ofizio bera duten sektoreko kideekin alderatuz, non dago euskara? Erdal hizkuntzetan hegazkinaren abiaduran doazi, gu aldiz txirrindulan eta malda goiti, hanka bakarrez pedalei eragiten. Nafarroan euskara hilzorian dago; Nafarroa hilzorian dago, hortaz. Sanzek eta konpainiak lege lotsagarri, murritz eta eskasa dute mahaigainean (nafar euskaldunok ez ditugu eskubide berak legearen aitzinean, hirutan zatitu baitute euskararen mapa). 'Legea badago!' erantzuten digute harrosko hainbatek. Legea bai, baina guttienez beteko balitz! Ez da nahikoa 'euskararen alde nago' erratea, legea aldatzea eskatu behar da. Euskarari bidea egin behar zaio, autobidea. Lau zirriken gainean paratu behar dugu, abiadura handiagoan aitzinera egin dezan. Guztiok haizatu behar ditugu zirrikak!

**Euskarari bidea egin behar zaio, autobidea. Lau zirriken gainean paratu behar dugu, abiadura handiagoan aitzinera egin dezan. Guztiok haizatu behar ditugu zirrikak!**

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Egunkaria, 98ko maiatzaren 8a

*«Enborrek auniztan izaten dute adarra barruan, kanpotik ikusten ez dena. Arbola gaztea zelarik adarra atera eta ihartuz gero, barruan geratzen da ezkutuan. Eta halakorik suertatuz gero, aizkora sartzeko lanak!».*

**Donato LARRETXEA**
Aizkolari eta enbor prestatzailea
Egunkaria 98-V-8

*«Orain erakustaldiak hasiko dira, udan asko izaten ditugu eta gero ikusiko dugu, agian udazken aldera edo saiatuko gara marka berria egiten... Aitak zaintzen nau, bera maisu ona baita, eta berak esaten dit zenbat kilo jaso».*

**Inaxio PERURENA**
14 urteko harrijasotzailea
Egin 98-V-11

## 11 GALDERA LABUR



**Beatrice DOLOSOR**
SENPERTARRA

- **Besta hoberenak nongoak dire?**
  - Sarakoak doike.
- **Euskal Herria ala Afrika nahiago?**
  - Biak maite ditut, desberdinak badire ere.
- **Gustokoa duzun jatekoa?**
  - Karameluzko izozkia.
- **Zerk beldurtzen zaitu?**
  - Gerlak.
- **Amets bat?**
  - Bidaiatzea anitz munduan barna kultura desberdinak ezagutzeko gisan.
- **Musika talde bat?**
  - Tapia ta Leturia eta edozein trikitilari.
- **Ugarte batetara eremanen zenukeen zerbait?**
  - Nire semea, Unai eta bere aita.
- **Zoin motako dantza gustatzen zaizu?**
  - Euskal eta afrikar dantzak, alta ez dute loturarik nere ustez.
- **Euroak problemak sortuko ditu ala ez?**
  - (Irriz) Ah bai, Niretzat hasteko bai!
- **Zoin pertsona historikok liluratzen zaitu?**
  - Betti Betteluk, nire lehen euskal dantza erakasleak.
- **Geroari begira, ze proiektu?**
  - Josteko tailer bat montatzea, bainan, Euskal Herrian.


**Ostargi Optika**
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ✆ 948 - 63 07 53



**J. RAMOS**
*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*
✆ 948631342 BERA • ✆ 948637172 LESAKA



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinakoak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa — Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

**PIKABEA** *pinturak*
**Molinero** drogerian galdetu
***Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu***
- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

EUSKARA

# EKBren autobus ibiltariak euskarak Nafarroan duen egoera agertuko du

Baztanetik igaro ondotik, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldean izanen da

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 16tik aitzinera autobus ibiltaria jarri du martxan Euskal Kultur Batzordeak (EKB) Nafarroako mendialdean eta erdialdean. Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren berri ematen duen erakusketa eta bideoa ikusten ahal dira bertan. Erakusketan, UEMAko herrika zein diren, UEMAn sartzeko baldintzak, euskalkiak, herri aldizkariak, irratiak, telebistak... eta Conecta gisako joku bat ere egonen da euskararen inguruko galderekin.

Bideoa Txema Zubizarretak egin du. Aktore lanetan Estitxu Fernandez Lesakako bertsolaria (Mariren paperean) eta Goiko (Eneko Aritza Nafarroako erregearen paperean) izan dira. Horiekin batera bertze hainbat pertsonaia ere aritu dira, hala nola Patxi Zabaleta idazle, politikari eta abokatu leitzarra eta Gorka Ovejero NUPeko Euskara Unibertsitatera plataformako kidea. Bideoaren zatirik handiena Bortzirietan grabatu da martxoa eta apirila bitartean, eta gainerako irudiak Iruñerrian hartu dira.

Autobusak eginen duen ibilbidea honakoa da: maiatzaren 16an Baztanen izan zen; maiatzaren 23an Lesaka (6etan Bittiriako parkean) eta Beran (8etan institututu aitzinean ) egonen da; 28an Altsasun; aste horretan bertan, finkatu gabeko egunetan, Burlatan eta Berriozarren (bi egun leku bakoitzean); ekainaren 2an Leitzan; ekainaren 20an Donezteben, Sunbillan eta Saldiasen; eta oraindik finkatu gabeko egunetan Ultzama-Larraunen, Irurtzunen eta Etxarrin. EKBk egin du bideoa, eta bisitatuko dituen herrietako Euskara Zerbitzuen laguntza jaso du.




## NAFAR PRESS — Nafarroako euskal aldizkarien elkartea sortu da

Indarrak biltzeko xedearekin Iruñerriko *Ze berri?*, Larraunaldeko *Mailope*, Sakanako *Guaixe*, Ultzamaldeko *Pulunpe* eta TTIPI-TTAPA aldizkariak NafarPress sortu dute. Administrazioarekin harremana sendotzea, publizitatea bereganatzea eta aldizkarien arteko elkarlana indartzea ditu helburuak. Aurten TTIPI-TTAPAK beteko du urtetik urtera eskuz aldatuko den koordinatze lana. Guzien artean 70.000 aleko tirada dute eta irakurle kopurua haunditzen ari da egunetik egunera. Gaur egun, ia 210.000 pertsonetara iristen da eskualde-prentsa Nafarroan. D.Noticias

## Eskualdeko informazioa Internet sarean ezarri dute Euskara Zerbitzuek

Eskualdeari buruzko informazio kulturala eta turistikoa eskaintzen duen web-orrialdea ezarri dute Internet-en Baztango Balleko Udalak, Malerrekako Mankomunidadeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak. Orrialdearen izenburua, 'Ongietorri, hemen euskaraz bizi gara' da eta informazioa euskaraz ez ezik, gazteleraz, frantsesez, ingeleraz eta katalanez aurki daiteke. Helbide elektronikoa luze xamarra da, baina merezi du: *http://www.eusnet.org/partaide/baztan/gaztel/gdemo.htm.*

Urte osoko kontratua egin da orrialde hau Internet-en kontzeko eta 42.000 pezeta gostako da. Erakunde bakoitzak, beraz, 14.000 pezeta ordaindu beharko du. Euskara Zerbitzuetatik adierazi digutenez, orain hiru urte gisako esperientzia bat egin zen eta arrakastatsua suertatu zen. Izan ere, gero eta gehiago omen dira beraien bidaiak hasi baino lehen Internet-sarean begiratzen dutenak.

GOZOTEGI - JAIONE

Altzate, 19•948630786 •BERA

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031•BERA

948 630 800
ALZAGA
auto escuela
KANTONBERRI, 2 - BEHEA • BERA • (lehen Artieda)
• Gidatzeko karneten tramitazioa
• Karneten berritzea

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 948631403•BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

## BERA

# Ikusmin haundia biztu dute Agerrako etxebizitza babestuek

Maiatzaren 25ean akautzen da eskaerak egiteko epea

ASIER GOGORZA



Agerrako Babes Ofizialeko Etxebizitzetako bakarren bat erosi nahi duenak heldu den astelehena bitartean izanen du eskaera egiteko astia. Maiatzaren 8an egindako aurkezpen ekitaldian, erdara hutsezko eskaera-orriak partitu ziren bertaratutakoen artean, Udalean entregatu beharrekoak. Jende franko hurbildu zen Kultur Etxera, bizitza hauen berri jakin gogoz.

Sara karrikan egitekoak diren 56 etxebizitza hauen gestioa Proginsa enpresak egin du, Berako Udalarekin elkarlanean. Aurkezpenean banatu zuten triptikoan ageri denez, hiru bizitza mota izanen dira aukeran, denak trasteleku eta garagearekin. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela dutenak, 14 milioi pezetatan salduko dituzte. Guztira 90 m² dituzten bizitza hauentzako dirulaguntza milioi batekoa izanen da gehienez ere. 75 m² eta bi logelakoak, 12 milioitan (gehienezko subentzioa: 878.000 Pta). Azkenik, 55 m²ko etxebizitzak daude, 9,5 milioitan (gehienezko sub.: 695.703 Pta).



Horrelako itxura izanen dute pisu berriek. Goitian, maiatzaren 8ko aurkezpenera agertu ziren interesatuak.

## Ikasleak bikain bertsotan

Joan den maiatzaren 7an Kultur Etxean egindako kanporaketa saioan herriko hainbat lagunek lortu zuten Eskolarteko Bertso-Paper Lehiaketako finalerako pasea. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan, Ainhoa Retegi (Labiaga). LHko 5. mailan, Estitxu Zelaieta. LHko 6. mailan, Leire Telletxea (Labiaga). DBHko 1. eta 2. mailatan, Egoitz Zelaieta (Toki Ona). DBHko 3. eta 4. mailetan, Celia Ordoki (Labiaga) eta DBHO mailan, Julen Zelaieta (Toki Ona).

Bapateko bertsoen kanporaketa ere egin zen egun berean, eta hauek izan ziren sailkatuak: 2na bertso lau oinekin kategorian, Beñat Taberna (Toki Ona). Maiatzaren 12an Elizondon eginiko saioan, berriz, Egoitz Zelaieta sailkatu da. 5na bertsoko kategorian, berriz, Julen Zelaieta sailkatu da maiatzaren 29ko Iruñeko finalerako. Ea nola moldatzen diren han.



## Juan Migel Errandoneak ateri du lehenbiziko izokia

Juan Miguel Errandonea "Dornaku"k maiatzaren 3an 4,5 kiloko izokia ateri zuen kutxarilaz "50" izeneko putzuan, denboraldia ideki zenetik 50. eguna betetzen zenean. Azken urteetan gertatu bezala, Iruñeko Hartza jatetxeak erosi du arrain preziatua, 140.000 pezetatan. Aurten kiloa 30 mila Pta ordaindu dute, iaz baino 5 mila gehiago. Gainera, 8.000 Ptako gainsaria eman zioten. Iaz 3 izoki ateri zituen Dornakuk.

## Mugaz Gainen 4. edizioa maiatzaren 27tik 29ra

Lamixine BATek antolatu eta eskola diferenteetako ikasleek parte hartzen duten antzerki jardunaldiak bukatuko dira egun horietan Berako Kultur Etxean. Antzerkia egun osoz izanen da ikusgai, honako talde hauen eskutik: Iruñeko Iturrama Institutokoak, Hendaiako Antzerkilariak, Lesakako Irain eskolakoak, Donostiako Bidebieta institutokoak. Beratik, berriz, Labiaga ikastolakoek eta Berako Rikardo Barojakoek antzeztuko dituzte beren obrak.

BOTXO ostatua
Tfnoa: 948 630 052
Zalain Auzoa, BERA

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

## LESAKA

# 445 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

203 milioi pezeta inbertsioetan erabiliko dira

AITOR AROZENA

445.725.130 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Herriko Etxeak, batzar eztabaidatsu batean PNVren aldeko botuekin, HBren aurkakoekin eta EAren abstentzioarekin onartu zen aurrekontuaren arabera. HBk aurrekontuen prestaketa eta aurkezpeneko prozedura salatu zuen.

203 milio pezetatik goiti inbertsioetan gastatuko dira (70 milioi Fraingo bideak moldatzen, 67 milioi instalazioetan, 9.360.000 pta Oningo zubia zabaltzen...), ondasunak erosteko 92 milioi erabiliko dira eta langileen soldata ordaintzen 68.650.000 pezeta.

Diru-sarrerei dagokienez, zergen bidez 80 milioi sartuko dira Herriko Etxeko kutxan eta 161 milioi dirulaguntzen bidez etorriko dira (kontuan hartu behar da zenbait inbertsio Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Planaren barnean sartuak daudela). Transferentzia arrunten bidez, ia 107 milioi sartuko dira Herriko Etxean.

Batzar berean, Andra Mari Erresidentziako aurrekontua onartu zen (41.750.000 pezeta).



### Jubilatuak Lizarra eta Urbasara

Gaur ortzeguna, Lizarra eta Urbasara joatekoak dira San Fermin jubilatu elkarteko kideak. 8etan autobusan abiatu, Etxegarateko gainean gosaldu eta Urbasan barna Lizarrara joanen dira. Ordubiak aldera Iratxe hotelean bazkaldu eta arratsean bueltatuko dira herrira. Ekainean, berriz, hainbat txapelketa jokatuko dituzte: proba konbinatua taldeka 4ean; mus azkarra 10ean; seiak 11n; *despistea* 12an; eta toka, igela eta boloak 18an.

### Herriguneko eta Alkaiagako industrialdeko berdeguneak zaintzeko lehiaketa zabaldu da

Herriguneko eta Alkaiagako industrialdeko berdegune eta lorategiak zaintzeko zerbitzua urte batez betetzeko lehiaketa deitu du Herriko Etxeak.

Herriko lorategien kasuan, hasierako aurrekontua 2.700.000 pezetakoa da. Alkaiagako industrialdeko berdeguneei dagokienez, aurrekontua 1.800.000 pezetakoa da, biak BEZa barne dutela. Urtebeteko kontrata bada ere, luzatzeko aukera izanen da.

Proposamenak ekainaren 8ko ordubata baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

### Eskolarteko bertsoak

Honako lesakar hauek lehiatuko dira Nafarroako eskolarteko Bapateko Bertso finalean: Xabier Terreros, Erika Lagoma, Alaitz Rekondo eta Ekhine Etxepeteleku. Nafarroa osoko bertsolari gazteekin lehiatuko dira maiatzaren 29an Iruñean eginen den saioan.

### flash

**Andra Mari erresidentzian** lan egiteko hiru lanposturako lehiaketa-oposizio deialdia zabaldu du Herriko Etxeak. Lanpostuok finkoak izanen lirateke eta egin beharreko lanen artean, adinekoei garbitzen, janzten edo mugitzen laguntzea eta erresidentzia garbitzea egonen lirateke, bertzeak bertze. Proposamenak maiatzaren 22an aurkeztu behar dira udal bulegoetan edo erresidentzian. Xehetasun gehiago ere bertan aurkitzen ahal dira.

**Tantirumairu dantza taldeak** Euskal Jaiaren balorazio positiboa egin du. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, bertze urtetan baino talde bat gehiago etorri zen. Gurasoek ere bertze urtetan baino dantzari gehiago eraman behar izan zituzten etxeetara bazkaltzera eta beraien laguntza eta borondate ona eskertu nahi du dantza taldeak.

**Ione Fagoaga** 14 urteko ehiztari gazteak erakustaldi berria eskaini du, Arabako Maeztun egindako estatu mailako proba batean bigarren izan baita. 20 partehartzaileen artean emakume bakarra –eta gazteena, noski– zen Ione.




Lore eta landareak
Frain auzoa • ✆ 948637826
LESAKA



• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •
Albistur, 39-K
☎ 948627542 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

## ETXALAR

# Pilota txapelketak jokatzen ari dira haurrak

### Neska eta mutiko, eskuzko pilotan eta palazkoan ari dira

PELLO APEZETXEA



Neska-mutikoak ederki ari dira pilota txapelketetan — Argazkia: Pello

28 haurrek hartzen dute parte txapelketetan. Eskuzko txapelketako bikoteak, Angel-Mattin, Estibalitz-Amaia, Beñat-Asier, Eneko-Jurgi, Ainhoa-Miren, Jon-Gaizka, Aitor-Julen, Joanes-Xabier eta Jose-Mikel dira. Aipatutako mutiko bikoteak palazko txapelketan ere ari dira. Eta, gainera, neska bikoteok: Miren-Lorea, Estibalitz-Garazi, Leire-Aintzane, Amaia-Amaia eta Ainhoa-Maite. Joxe Mª Arburua da arduraduna beti bezala.

#### Latsabea desagertzeko arriskuan

Duela urte pare bat edo, Latsabea konpondu behar zutelako berria eman genuen TTIPI-TTAPAn. Ez da erran behala gertatu, eta orain Nafarroako Gobernuaren papera etorri da Herriko Etxera, non etxe hori erortzeko arriskuan dagoela erraten den, eta, ondorioz, errepidean pasatzen den norbaiti kaltea ere egiten ahal diola. Horregatik, zera adierazten du, etxea moldatu edo, bertzela, bota egin beharko dela.

#### Autoak aldamioa eraman zuen

Autoa eta motordun ibilgailuak gero eta gehiago dabiltzan honetan arriskuak ere ugaritu egiten dira. Ziztua delako batzuetan, bideak desegokiak direlako bertzeetan. Lehengo karriketan ibiltzeak ere badakar arriskurik, ez baitziren autoetan pentsatuta egin. Horren erakusgai izan da berriki gertatua: turisten auto batek Etxegaraiko aldamioa jo eta desegin du.

#### Euskal Katekesiaren Eguna

Hondarreko urteetan, udaberriarekin, kristau katekesia euskaraz egiten duten Nafarroako katekista eta haurrak elkartzen dira, besta giroko egun atsegina antolatuz. Aurten ekainaren 6an, larunbata, izanen da, eta Iruñean, Salestarren etxean, lehendik ere ezaguna den tokian.

#### Eskolako haurren kanpaldiak

6. mailakoek urrunago eta luzeago eginen dute ateraldia, Salamancaraino joanen dira, izan ere, Arantza eta Igantziko maila bereko lagunekin. Eta aste beterako. 1-5 mailakoek Zarautzen eginen dituzte hiru egun, maiatzaren 25-27an. Eskolaurrekoek, berriz, Hondarribian, 28-29an.

#### Komunioa eta sendotza

Gazteen Sendotza edo Konfirmazio ospakizuna maiatzaren 23an izanen da, aurten, larunbateko 8,30etan. Lehenbiziko Komunioa, berriz, maiatzaren 31n.


BORTZIRI
Labadorak eta hozkailuak 24 ORDUTAN KONPONDUA
Tel. eta faxa: 948 63 10 91• Iturlandeta, 1 • BERA


INAXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 948 637 059 - LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41• © 948637944
LESAKA

HARITZPE
JATETXEA
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

## IGANTZI

# Heldu den ikasturtean 37 ikasle izanen ditu Igantziko Eskolak

ETBko 'Bertatik bertara' programan agertu zen San Juan Xar

OSKAR TXOPERENA

Ari da ikasturte hau ere bere azkenak ematen eta, aintzinekoetan bezalaxe, hasiak dira haur, irakasle eta gurasoak kanpaldiak eta ateraldiak prestatzen. Eskolako ttikienak, Haur Hezkuntzakoak, Hondarribira joanen dira maiatzaren 28 eta 29an.

1., 2., 3. eta 4. mailakoek, berriz, Zarautzen pasatuko dituzte hiru egun, maiatzaren 25, 26 eta 27a, aurten bira mailako bi taldetan banatuta. Bitartean, eskolako haundienak Salamanca aldean ditugu egunotan, 'eskola ibiltariak' programan parte hartzen.

Bertzalde, heldu den ikasturtean aurtengoan baino ikasle bat gehiago izanen omen du eskolak, hiru izanen baitira ikastera kanpora atera beharko dutenak, eta lau, berriz, irailean hasteko izena eman dutenak.



**Ikasturte bukaera begibistan dutela, berehala hasiko dira eskolako neska-mutikoak urteroko kanpaldiak eta ateraldiak egiten** Argazkia: Oskar

### San Juan Xar Euskal Telebistan

Orain dela hogeiren bat egun San Juan Xar Euskal Telebistako 'Bertatik bertara' programan ikusteko aukera izan genuen.

Beharbada Igantziko parajerik politena den hori ezagutu nahian hurbildu ziren tramankuluekin telebistakoak, eta lan horretan bi igantziar izan zituzten laguntzeko, Martxelino Allezerakoa eta Anttonio Bazarrekoa.

Ez du seguraski herritarrok xoko horretan zer dugun behar bezala estimatzen.

## flash

**Jubilatuen bidaiak**

Igantziko Zahar-Etxekoek antolatuta 42 lagun hurbildu ziren maiatzaren 12an Bilbo aldera, Gugenheim museo famatua ikustera. Bi egun geroago, oraingoan Arkupeak elkarteak antolatuta, Tuterara joan ziren jubilatuak.

**Lehen jaunartzeak**

Herriko sei haurrek eginen dute hilaren azken egunean lehendabiziko jaunartzea: Unai Huizi, Iñaki Sein, Sonia Taberna, Ana Loiarte, Daniel Taberna eta Oihana Txoperena.

**Gazteen bilerak**

Badoaie aintzinera Biltokik gazteekin egin nahi duen lana. Dagoeneko bi bilera egin dituzte eta gazteek euren ordezkariak aukeratzeko balio izan dute: Olatz Retegi, Joseba Unanua eta Urtzi Loiarte.


CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZAUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313



ALBERGEA JATETXEA
© 948634179
ARANTZA



© 948631076 • BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

## ARANTZA

# Ternida Eguna prestatzen ari da Ekaitza elkartea

### Dabid Iturria intsumisoa maiatzaren 14an epaitu zuten

ELIXABET ETA GARBIÑE

Ternida Eguna hurbiltzen ari dela-eta Ekaitza elkarteko batzordearen azken bileran egun hortan egiten den bazkaria antolatzen hastea erabaki zen. Ekainaren 7an, igandea, tokatzen da aurten Ternida Eguna eta Senberrekobordan prestatuko da bazkaria nahi duenarentzat. Eguraldi txarra baldin bada, berriz, elkartean bertan eginen da. Apuntatu nahi duenak Belen edo Juanitari deitu beharko dio maiatzaren 31 baino lehen.

#### Pilota txapelketa

Bertzalde, Ekaitza elkarteak ligaxka moduan jokatuko den pilota txapelketa antolatu du. Izena eman nahi duenak Gaizka edo Anderrekin egon beharko du maiatzaren 31 baino lehen.

#### Solasaldi interesgarria

Maiatzaren 15ean solasaldi interesgarria izan zen Herriko Etxean, herri ttikien bizitasunaren inguruan. Hizlariak Jagoba Errekondo eta Iñaki Arregi izan ziren eta hagitz interesantea suertatu zela adierazi ziguten bertaratutakoek.

#### Dabid Iturria intsumisoa epaitua

Maiatzaren 14an epaitu zuten Iruñean Dabid Iturria intsumisoa. Fiskalak sei hilabeteko gartzela zigorra eta hamar urteko inhabilitazioa eskatu zuen eta bi minutu iraun zuen epaiketa epaiaren zain gelditu zen. Urtebete baino guttiagoko gartzela eskaera denez, Dabidek ez luke espetxera joan beharko.



**Maiatzaren 3an ospatu ziren bataioak**

Bataiatutako haurrak Mikel Larretxea eta Sara Almandoz lehengusuak eta Xabier Taberna dira. Argazkian bakoitza bere amarekin ageri da.

*Pertsonaia*

*«Hagitz esperientzia polita izan zen Parisera joatea»*



**Estitxu IPARRAGIRRE**

Estitxu Iparragirrek Parisen frantses ikastaroa egiteko aukera izanen du uztailean. Aurtengoa bigarren urtea da Gizarte Batxilerreko 2. maila ikasten duen Estitxu Parisera joaten dela, eta bere erranetan, *«hagitz esperientzia polita da»*. Nafarroako Gobernuak 150.000 pezetako saria eman dio bere eskol-curriculumagatik, baina gurasoek ere *«ehun mila pezeta inguru ordaindu beharko dute eta gainera, hango gastuak»*. Ongi pasa!



# SUNBILLA




## Sendotza, bataioak eta lehen jaunartzeak izan dira asteotan

Ia elizkizun klase guziak izan ditugu azken asteotan Sunbillan. Maiatzaren 2an, ezkerreko argazkian ageri diren 14 gaztek (Haritz, Mikel, Asier, Sergio, Haritz, Pablo, Josune, Esther, Igone, Leire, Xabier, Enrique, Josu eta Iker) sendotza sakramentua hartu zuten eta hurrengo egunean Ainara eta Liher bataiatu zituzten. Maiatzaren 10ean Julen, Mª Jose, Jon, Natalia, Ainhoa eta Mikelek (eskuineko argazkian) lehen jaunartzea egin zuten. Argazkiak: ZALDUA

# Pilotalekua igandean inauguratuko da

## Lanak akitzeko laguntza eskatu da

JAIONE ETA ALBA

Pilotalekuan egin diren moldatze lanen ondotik, inaugurazio ekitaldiaren eguna igande honetan, maiatzak 24, finkatu da, nahiz eta lanak akitzeko juxtu xamar ibiliko diren. Gaizki ulertu baten ondorioz, kantxaren zati bat saneatu gabe utzi eta zola berritu behar izan dute. Hortaz, iganderako dena prest egoteko herritarren laguntza eskertuko dute. Inauguraziorako profesionalen arteko pilota partida jokatuko da, Udaberriko Sariko finala.




**Urrezko Ezteiak**

Maiatzaren 9an, San Tiburtzio baserrian bizi diren Miguel Gelbenzu eta Fermina Almandozek Urrezko Ezteiak ospatzeko elizkizuna egin zen. Zorionak!


XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ZURE EZKONTZA EGUNA MUSIKAREKIN ALAITU NAHI BADUZU HEMEN GAUDE ZURI ALAITZEKO
Jalisko Band
Tel: 948450590 Jalisco • 948450240 Juan Carlos


DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
*Udaberrian, 'TKrom' kalitatezko pintura plastikoa eta esmaltea %30eko merkealdiarekin*
Eztegara 19 • ✆ 948 630 240 • BERA


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

## DONEZTEBE

# 336 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Udalak

### Musika Eskolaren Patronatuak ia 11 milioikoa izanen du

PATXI IRIARTE


Hornidura sareak berritzeko lanak hasiak direnez, zenbait astetan hankaz goiti egonen dira herriko karrikak Argazkia: Zaldua

Doneztebeko Udalak 336.924.420 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten, behin betikoz onartutako udal aurrekontuaren arabera. Musika Eskolaren Patronatuak, bere aldetik, 10.893.137 pezetako aurrekontua izanen du.

Gastuei dagokienez, aurrekontuaren erditsua (166.706.883 pta) inbertsioetan joanen da. 61 milioi pezeta ondasunak erosteko erabiliko da eta ia 52 milioi udal langileen soldatak ordaintzeko izanen dira. Diru sarreretan, berriz, sosik gehienak Nafarroako Gobernuko dirulaguntzetatik ailegatuko dira (110.817.468 pezeta). 75 milioi transferentzia arrunten bidez sartuko dira udal kutxan. Tasa eta zerga ezberdinen bitartez, 84 milioi pezeta ingresatuko ditu Udalak.

### Bordatxo

Joan den larunbatean itxi da neguko denboraldi berri bat Bordatxon. Urtero bezala, Iruritako bestekin batera dantzalekua urria bitarte itxi da. Aurtengoa polemikaz betetako urtea izan da, herritarrak kexu azaldu baitira zikinkeria, txikizio eta zenbaitek egindako ganberrokeriekin. Udaletxeak abisua eman eta gero neurriak hartu zituen. Azken larunbatak giro onean eta arazorik gabe joan dira. Datorren urte osoa horrela izan dadila espero dugu.

### Hornidura sareak berritzeko obrak hasi dira

Herriko karrikak hankaz goiti daude berriro, joan den ortziralean hasi baitziren saneamendu, ur-hornidura, elektrifikazio eta argi sarearen lanak. Aurrekontua 203 milioikoa da eta 137 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu, Hirurteko Planaren barnean. Herria txukun-txukun geldituko da lanak akitzean, baina bitartean ez da erosoa izanen donneztebarrentzat. Alkateak hilbeltzean egindako barkamen eskaera berritu du, argi eta ur-horniduran mozketak eginen direla erranez. Erabearean, zenbait karrikatan ezin izanen dira ibilgailuak aparkatu.

## flash

**Herriguneko lanak**
*Construcciones Mariezkurrena* enpresak eginen ditu Doneztebeko herriguneko ur-hornidura, saneamendu, zolaberritze eta argi eta gas sarearen berritze lanak 202.809.895 pezetaren truke.

**Janari manipulatzaile karneta**
atera edo berritzeko aukera izanen da ekainaren 4an. Juansenean egin beharko zaio eskaria zonaldeko albaiteroari.

**Musika eskolan**
instrumento irakasle izateko lau lanposturako lehiaketa-oposizio deialdia egin du Udalak. Piano, akordeoi, txistu eta tronpeta irakasleak hartu nahi dira eta proposamenak ekainaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean.

**Abesbatzak**
ikasturte bukaerako kontzertua maiatzaren 30eko meza ondotik eskainiko du, seguraski. Kontzerturo nabari da koralaren hobetzea, ahotsak gero eta landuagoak baitaude.



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE


BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • LESAKA

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
© 948 450 491

## MALERREKA

# Zerga, auzolan eta herrilurren gaineko udal ordenantzak onartu dira Oitzen

Anizpe eta Zozorbe-Gararteburu inguruetan aziendak alatu ahal izanen dira

TTIPI-TTAPA

Oizko Udalak zergak, auzolana eta herrilurren aprobetxamendua arautuko dituen ordanantza behin betikoz onartu du.

Zergen kasuan, printzipio orokorrak, zorrak, arau-hausteak eta zigorrak, gestio-arauak, diru-bilketa, zentsoa eta errekurtsoa egiteko aukera zehaztu dira.

Herrilurren aprobetxamenduaren barrenean, aziendak alatzeko lekuak ezarri dira. Anizpe inguruan gisa guzietako aziendak alatu ahal izanen dute, zerriak ezik, uda eta udazkenean. Zozorbe-Gararteburu inguruko 11,8 hektareatan, berriz, ardiak bakarrik sartzen ahal dira, 300 buru gehienez. Egur-loteen banaketa ere arautu da ordenantza honetan.



**Iturengo joaldunak Herri Urrats-en**

Iturengo joaldunek ez zuten hutsik egin urtero-urtero Senpereko aintziran izaten duten zitara. Gainera, aurtengoan laguntza izan zuten, hemendik joandako hamar lagunei Usurbilgo koadrila bat gehitu baizitzaien, 30 laguneko taldea osatuz. Beti bezala ikusmin haundia sortu zuten eta berez bero zegoen giroa, gori-gori jartzen lagundu zuten. Arg.: Euskaldunon Egunkaria

Auzolanari dagokionez, 18 eta 65 urte arteko norbait duten familia guziek egin beharko dute, urtean bortz egunez gehienez. Auzolana derrigorrez lanegunetan egin beharko da, nahiz eta festetan ere, egun batez garbiketa lanak egin beharko diren.

## Udaberriko Biraren barnean 'Big' filmea Aurtizko pilotalekuan

IBAN ISASI

Nafarroako Gobernuak antolatutako Udaberriko Biraren barnean, zinema emanaldia eginen da maiatzaren 30ean, larunbata, arratseko 10etatik aitzinera, Aurtizko pilotalekuan. Bertan, Tom Hanks aktorearen 'Big' filmea eskainiko da.

**LEHEN JAUNARTZEA**

Biharamonean, maiatzaren 31n, berriz, lehenengo jaunartzea eginen dute Iturengo neska-mutikoek. Ospakizuna, eguerdiko 12etan hasiko den Meza Nagusiaren barnean eginen da.

KRISTALDEGI
ZERBITZUA ETXERA
(zonalde osoan)
✆ 929 443 765 • BERA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735 • IRUN ✆ 943622305



BIKONDE
Edozein harri-lan artistiko egiten da



BASATE
ETXALAR
✆ 948 635 258

Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA
• Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
• Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
• Toldo korrederoak
• Bolketeendako sareak
• Kamioiendako klase guzietako toldoak
• Piszina estaltzeko sareak
• Trinkajetarako Slingak
Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)
TOLDOS BAZTAN, S.L.
Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

## KULTURA

# Baztan-Malerreka-Bidasoako I. Trikitixa Txapelketa antolatu du Lesakako Trikitixa Eskolak

18 urte arteko musikariei zuzendua



TTIPI-TTAPA

Jone Elgorriagak zuzentzen duen Lesakako trikitixa eskolak antolatuta, Baztan-Malerreka-Bidasoako Gazteendako lehen trikitixa txapelketa burutuko da uda honetan. Hemezortzi urtez beheitiko trikitilariei zabaldutako txapelketa honetan apuntatzeko epea maiatzaren bukaera arte luzatuko da, horretarako 948637907 (Jone) telefonora deituz.

Saioei dagokienez, lehendabizikoa Arizkungo San Juan bestetan eginen da, oraindik zehaztu gabeko egunean. Bigarrena, berriz, Donezteben eginen da ekainaren 29an, San Pedro besten egitarauaren barnean, arratsaldeko 6etatik aitzinera. Finala, azkenik, Lesakan ospatuko da uztailaren 5ean, igandean, aitzineko saioetatik ateratako zortzi bikote onenekin. Hemen ere Sanferminen hurbiltasuna probextuko da trikitien doinuak hedatzeko. Saio guzietan lau pieza jo beharko dituzte partehartzaileek: trikitixa, porrusalda, fandango eta arinarin. Finalean, trikitixa onenarentzat saria izanen da, Lesakako eskolaren eskutik.

Jone Elgorriaga irakaslearen helburura *«erreka honetan trikitixa bultzatzea eta txapelketa haundiagoetan parte hartzera ausartzen ez direnak atera ahal izatea da»*.




## GOIZUETA

# Ibilbidea aldatu diote mendi bizikleta probaren aurtengo edizioari

Maiatzaren 31n burutuko da goizeko 10etatik aurrera

ESTEBAN AROZENA

Umore Ona elkartearen antolakuntzapean hilaren 31n jokatuko den mendi bizikleta ibilaldiaren aurtengo edizioa ez zaie aurreko urteetakoa bezain gogorra eginen partaideei, asko erreztu baitute burutu beharreko ibilbidea.

680 metrotako Enekoelorrietako gaina izaten zen orain arte zirkuitoaren gailurra, baina aurtengoa 585 metrotara dagoen Frantzeraren gurutzea izeneko mendia igotzea nahikoa izanen dute txirrindulariek, hortik aurrerako kilometroak denak goitik beheitikoak baitira herrira ailegatzerakoan 26 osatu arte. Antolatzaileek esan zigutenez, herritarren partaidetza bultzatzea da ibilbide errezagoa prestatzearen arrazoia. Kontuan izan behar da iaz korritu zuten 90 txirrindularietatik 8 bakarrik zirela bertakoak.

Goizeko 10etan emanen dela irteera eta aipatu behar da izena emateko, aurretik 500 pezeta ordaindu beharko dutela helduek eta 100 pezetakoa 14 urtetik beheitikoek.



### Belakoren joareak UEMA Egunean ikusgai

Aramaion eta Oiartzunen bezala, Jexux Mari Apezetxea 'Belako' joalgilea izanen da Goizuetako ordezkaria hurrengo igandean, hilak 24, Arantzan ospatuko den UEMA Eguneko artisauen erakusketan. Udalerri Euskaldunen festa horretara joan nahi duten guztientzat goizeko 8,30etan aterako da autobusa (debalde) herriko plazatik.

### flash

**Notarioa herrian**

Lekunberrin lana egiten duen Agustin Cabrera notarioak, hilaren azkeneko asteazken guzietan Herriko Etxean egonen da hemendik aurrera, goizeko 10etatik aurrera. Udalak luzatu zion eskaera honi inolako arazorik gabeko baiezkoa eman zion Cabrera jaunak.

**Sexualitateari buruzko solasaldia**

40 gazte inguru bildu zituen Luis Elberdin sexologo ospetsuak Arte eta Kultura kanpainaren barrenean emandako hitzaldian.

## ARESO

# Euskal Herriko bi txapel sokatira taldearentzat

600 eta 640 kilotan nagusitu dira

JUANA Mª SAIZAR

Ailegatu dira txapelak, ailegatu. Eta bi, alajaina! 600 kilotan martxoaren 1ean Arronizen eta 640 kilotan martxoaren 9an Laudion. Zorionak talde osoari, hor erakutsi baitiztute beraien lanaren fruituak. Esaera zaharrari kasu eginez, ez daude bi hirugarrenarik gabe eta ea bada nola moldatzen diren Legorretan 680 kiloko finalean. Animo eta berriz ere, zorionak.



640 kilotan Euskal Herriko txapeldun atera den taldea — Argazkia: Egin

### Sendotza eta jaunartzea

Maiatzean gaude eta lehen jaunartzeak eta sendotzak ospatzeko sasoia da. Aurten sendotzaren sakramentua, obispoak eman beharrekoa dela eta, Fernando Sebastianek proposatu zuen Areso, Ezkurra eta Leitza elkartzea eta batera ospatzea. Herriko gazteak ez zeuden konforme eta protesta eta hitz egin ondoren, bikarioa ekartzea erabaki dute, bainan oraingoz eguna zehaztu gabe. Maiatzaren 24an, Igokunde egunean, sei neska-mutikok lehen jaunartzea egingo dute.

## LEITZA

# Kultur Asteak hogeigarren edizioa beteko du aurtengoan

Maiatzaren 29tik ekainaren 7ra hainbat ekitaldi antolatu dira

JOSEBA AZPIROZ



**Astean zehar erakusketak eginen dira Udaletxean, Aurreran eta Guratz-Mendi elkartean** Artxibokoa

Kultur Astea, maiatzaren 29tik garagarrilaren 7a bitarte izanen da. Aurtengoa, Kultur Taldeak antolatzen duen hogeigarrena da. Gure eskerrik beroena merezi dute 20 urte hauetan protagonismo handirik gabe herriarentzat lanean aritu diren eta ari diren guztiak. Eta hori erakusteko modurik egokiena, antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea izan daiteke. Irakur ezazue aurtengo egitaraua, izanen baita gustagarria iruditiko zaizuen ekitaldiren bat:

Maiatzaren 29an, gaueko 10etan *'40 ordu'* pelikula ikusgai zineman.

Maiatzaren 30ean, goizeko 11etan altxorraren bila aritzeko aukera. Arratsaldeko 8etan elizan Faltzesko abesbatzaren eta Asketa abesbatzaren emanaldia eta kide ohiekin afaria.

Maiatzaren 31n, XVIII. eskulangintza erakusketa (taloak, trikitilariak, txalaparta...) zabalduko da.

Ekainaren 1ean, 8etan 'Euskal selekzioa bai!' hitzaldia eta bideo emanaldia zineman.

Ekainaren 2an, EKBk antolatutako euskararen autobus ibiltaria etorriko da plazara. 2etatik aurrera irratsaioa.

Ekainaren 3an, 8etan 'Piriniotan zehar' diapositiba emanaldia zineman.

Ekainaren 4an, 8etan, Guatemalari buruzko diapositiba emanaldia zineman.

Ekainaren 5ean, 3etan *Kiki, Koko, Moko eta Flax* pailazoak plazan. 5etan atsaldekoa eta 10etan *'40 ordu'* pelikula zineman.

Ekainaren 6an, 10etan mendi ibilaldia eta musika eskolakoen kontzertua zineman.

Ekainaren 7an, 11etan herri kirol jokoak eta 2,30etan herri bazkaria.

## Landa industrialdeko orubeak enkantean salduko ditu Udalak

Apirilean egindako batzarrean, Landa industrialdeko orube dotazionala enkante publikoan saltzea erabaki du Udalak. Lurzati honetan, dotazio eta zerbitzuak jarri ahal izanen dira. Honetaz gain, beste bi partzela ere subastan salduko dira, nabe txikiak (100 m²ko nabeak) egiteko baldintzarekin.

## flash

**UEMA Eguna** dela eta autobusa antolatu dute igande honetan Arantzara joateko. Goizeko 9etan aterako da eta dohainik izanen da. Izena Astiz eta Maimur liburudendetan eman daiteke, ostirala baino lehen.

**Ibilgailuen gaineko zerga** kobratzeari ekin dio Udalak. Garagarrilaren 30a arteko epea dago ordaintzeko eta 16.800.000 pezeta jasoko ditu Udalak zerga honekin. 1.450 kotxe, 294 kamioi, 40 atoi edo erremolke eta 65 moto eta motozikleta daude zentsatuak herrian.

**Aparkatzeko marrak** Kaleak poliki-poliki margotzen eta marratzen ari da Udala. Kaleetako aparkatzeko marren ondoren, gaizki utzitako kotxeetan abisu bat jartzen hasi da. Eta abisuen ondoren, isunak edo multak ezartzen hasteko asmoa da, hartara behartuz gero.

**Taxi zerbitzurik** gabe hilabeteak egin ondoren, Margarita Padillak zerbitzu hori emateko udal lizentzia tramitatu du. Beraz, behar ezkero, hemendik 908873016 telefonora deitu dezakezu.

**Kontzertua larunbatean Torrean** Larunbat honetan, maiatzak 23, gaueko 12etan *'King Mafrundi'* taldearen kontzertua izanen da Torrea Tabernan. Sarrera: 300 pezeta.


IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETISTA NATUROPATA
✆ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO
- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

Elizatze
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza ✆ 943.492698 OIARTZUN



LARRALDEA SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat Larunbata eta besta egunetan zabalik
✆ 948 452121 • LEKAROZ

## BAZTAN

# Oronozko batzarreak ez du onartu saihesbidearen proiektu ofiziala

Askapeko kurba libratzeko tunela egitea proposatu du

TTIPI-TTAPA



**Nafarroako Gobernuak proposatutako proiektua eginen balitz, herriari gelditzen zaizkion lur-eremu bakanak errepideak gurutzatuko lituzke**

Artxiboa

Oronozko batzarreak ez du onartu Nafarroako Gobernuak N-121-B errepideari aurkeztutako saihesbide proiektua. Saihesbidea egitea nahi dute, bai, baina kanposantuaren gainkaldetik tunela eginez. Florentino Goñi alkatearen erranetan, *«proiektu ofizialak Oronozko herriari gelditzen zaion lur-eremu bakarra hartzen du eta Nafarroako Gobernuaren lurrak ez ditu ukitzen. Noizbait etxebizitzaren bat edo bertze zerbait egin nahi izanez gero, ez genuen lurrik izanen»*. Honetaz gain, 350 metroko tunelarekin Askapeko bihurgunea eta harrobia libratu eta zuzenera aterako litzateke errepide berria. Proiektu osoak 4.000 milioi pezetako aurrekontua duen bitartean, tunela eraikitzea 400 milioi gostako litzateke, baina alkatearen ustez, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren gibeletik ez da arrazoi ekonomikorik, politikoak baizik. *«Guk bizpahiru urte esperatu behar badugu, berdin zaigu, baina ongi egin dadila, ez abudo eta gaizki. Beraiek lehenbailehen egiten hasi nahi dute, euren legealdiaren barrenean»*.

Balleko Udala ere proiektu ofizialaren kontra azaldu da, oroneztarrei babesa eman eta alternatiba aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari. Florentinok dioen bezala, *«orain kontestaren esperoan egon behar dugu»*.

## flash

**Irurita Baigorriko eskola saltzeko** hirugarren enkantea deitu du Balleko Udalak. Oraingo honetan, hasierako preziotik % 10 jautsi du Udalak (21.827.552 pezeta) eta proposamenak maiatzaren 25rako aurkeztu behar dira.

**Ingurugiroari** buruzko eskolaz kanpoko hezkuntza eta sentsibilizazio ekitaldiei Nafarroako Gobernuak zabaldutako dirulaguntza-deialdira hiru proiektu aurkeztu ditu Balleko Udalak. Onddo eta Perretxikoen Astearen 11. edizioak 211.000 pezetako aurrekontua izanen du. Sendabelar ikastaroaren aurrekontua 184.388 ptakoa izanen da eta balleko denda eta komertzioetan plastikoak ez erabiltzeko sentsibilizazio kanpaina gauzatzeko 509.000 ptako aurrekontua aurkeztu da.

## Zenbait herrilur desjabetu eta lursail partikularrekin trukatzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak, Balleko zenbait herrilurren onura publikoa deklaratu eta haien desjabetzea onetsi du. Batetik, 23.772 m²ko herrilurra desjabetuko da eta Marcos Irigoienenen 23.776 m²ko lursail batekin trukatutzeko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak Balleko Udalari. Bertzetik, 3.472 eta 1.250 metroko bertze bi herrilur, 3.224 eta 2.106 metro dituzten lursail partikularrekin trukatuko dira. Truke hauen xedea, herrilur eremu haundi batean dauden lur partikularrak kentzea da, aprobetxamendu hobea lortzeko.

Azkenik, 861 metroko herrilurra desjabetuko da, Fermin Organbideren lursail batekin trukatzeko. Truke honen xedea Beartzungo errepidearen trazatua hobetzea da.

## Udaberriko Kultura Zikloaren azken ekitaldiak asteotan

Martxoan hasi eta azken txanpan sartua da Elizondoko Udaberriko Kultura Zikloa. Ortziral honetan, maiatzak 22, piano kontzertua eskainiko du Jeannie Quertier, Baztango Udal Musika eskolako zuzendariak. Larunbatean, biola eta piano kontzertua eskainiko dute Luis Llocer eta Francisco Navarrok. Maiatzaren 30ean, Lesakako abesbatzak *'Harria eta burdina'* emanaldia eskainiko du eta ekainaren 6an, azkenik, Berako abesbatzak *'Barojaren orubea'* emanaldia eskainiko du. Abesbatzak elizan eta musikariak Kasinoan arituko dira, 8etan.

**OPS** *Ingenieros S.L.*
- **Topografia lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
- **Proiektuak:** Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

**La Asturiana**
ostatu• jatetxea
Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

## BAZTAN



Orakunde Eguna, 1930. urte inguruan: Inaxio Irigoien kordionista, Benito Habans txistularia, Tomas Habans danborjolea, Luis Mª Uriz maisua eta haurren artean Nicanora Gamio, Juana eta Veronica Barrenetxe, Soledad Olazar, Jose Iturralde, Mikela, Elisa eta Isabel Mutuberria, Mª Kristina, Josefina, Joakina eta Patxiku Santesteban, Irentxu eta Lolita Habans, Felisa, Mª Dolores eta Diego Etxeberria, Bitoriana eta Genoveva Zelaieta, Teresita Irigoien, Maria Arretxea, Martin, Rosario eta Irene Zabaleta eta Dolores eta Juana Iraola. Argazkiak: Lolita Habansek utziak

# Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 29tik 31ra

### Mundiñano anaiak trikitilarien emanaldi batekin akituko dira

**Ortzilerie, maiatzak 29:**
**8etan** altxaferoak botako dira beste hasiera emanez. Ondotik, Doneztebeko txistulariak herrian barna. **10etan** herri afaria, Joxe Angel akordeolariak alaiturik.
**Larunbata, maiatzak 30:**
**12etan** haurrendako jokuak. **12,30etan** mus txapelketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MEDIA LUNA taldearekin.
**Igandea, maiatzak 31:**
**12etan** Meza Nagusia. Elizondoko koralak hainbat kantu eskainiko ditu. Ondotik, hameketakoa hurbiltzen diren guziendako, txistulariek alaiturik. **1etan** esku pilota partidak. Haurretan: Otxandorena-Iraola, Barberena-Arraztoaren aurka. Gazteetan: Eraso-Arraztoa, Plaza-Altzugarairen aurka. **7etan** herri kirol jaialdia. **8etatik 10etara** Mundiñano anaiak trikitilarien emanaldia, bestei akabaila emanez. Ekitaldi honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.



Pilota plaza eta eskolaren inaugurazio ekitaldia

## flash

**Udako Euskal Unibertsitatean** parte hartu nahi duten baztandarrei zuzenduta 50.000 pezetako dirulaguntza eman du Balleko Etxeak. Diru hau, ikastaroetan parte hartzen duten ikasle eta langabetuen artean banatuko da eta ez da inoiz matrikula eta egonaldiaren erdia baino gehiago izanen.

**Oronozko** eskola publikoa egiteko lanak *Construcciones Mariezkurrena* enpresak eginen ditu, 41.455.936 pezetaren truke.

**Almandozko** ur-hartze, ur-eramate eta depositoaren lanak egiteko enkante deialdia zabaldu du Balleko Udalak. Hasierako aurrekontua 28.115.371 pezetakoa da eta proposamenak maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira. Lan honetako zuzendaritza teknikoa ere lehiaketa bidez erabakiko da. Hasierako gastua 1.438.476 pezetakoa da eta eskaintzak maiatzaren 15rako aurkeztu behar dira.

**SPARK**
ENGLISH ACADEMY CENTRE
Ingelerarekin arazorik?
Ez duzu aprobatzea lortzen?
Atzendu egin zaizu?
...edo aspertuta zaude?
UDAKO IKASTAROAK
ABUZTUA-IRAILA
MAILA eta ADIN GUZTIAK
MATRIKULAZIOA
MAIATZA eta EKAINEAN
NATIVE CERTIFICATED
Deitu konpromezurik gabe
948 58 13 38
Giltxaurdi, 12 - 3.B • ELIZONDO

## BERTIZ

# 86.000 lagunek bisitatu zuten iaz Bertizko Natur Parkea

1996. urtean baino ia hamar mila lagun gehiagok

TTIPI-TTAPA

Bertizko Natur Parkean 85.798 bisitari sartu ziren iaz, Patronatuko Zuzendaritza Batzordeari Aiansoro enpresak aurkeztutako memoriaren arabera. Kopuru honek nabarmenki hobetu du 1996koa (76.361 bisitari), baina oraindik 1995 urtean lortutakotik urrun (102.982). Kontuan hartu behar da 1996an hasi zela loretegira sartzeko sarrera kobratzen. Iaz 8,7 milioi pezeta lortu ziren modu honetara.

Udako bisitariak kopuru berdintsuan mantendu badira ere, igoera udazken, udaberri eta neguko asteburuetan nabarmendu da. Azaroan Belateko tunelak zabaldu izana ere Nafarroako herrietatik etorritako bisitarien kopuruan nabaritu da.



Tenientetxean dago Naturaren Interpretazio Zentrua — Artxibokoa

Halere, bisitari gehienak Nafarroatik kanpokoa da (%66,22). Naturaren Interpretazio Zentrura 66.572 lagun sartu ziren, parkea bisitatu zutenen %77,59a.

Parkearen irudia ona da orokorrean, baina zenbait gauza hobetu behar dela uste dute, kanpoko nahiz barneko seinalizazioa, adibidez.

### AURTENGO INBERTSIO PLANA

Bertizko Parkea zaintzeko 18 milioi pezetako inbertsio plana aurkeztu da. 7 milioi bide eta azpiegiturak egiten erabiliko dira, 5.196.753 pta loretegiko lanetan, 2.369.213 pta Tenientetxearen mantenimenduan, 2.107.952 pta kartel eta seinaletan eta gainerakoa Zabala eta Etxeberria mantentzen.

## URDAZUBI

### Herrira sartzeko bidea moldatzeko kontratuak egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak baimena eman dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari errepideetako bi lan-kontratu egin ditzan. Zehazki, Urdazubik sartzeko bideak hobetuko dira N-121-B errepidean eta lan horren zuzendaritza kontratatu da.

Gobernuaren baimena beharrezkoa da gastua bi aurrekontu-ekitalditan banatzen delakoz. Sarbideak hobetzeko gastatuko diren 64,9 milioi pezetatik 29,1 milioi aurtengo aurrekontuen kargura finantziatuko dira eta gainerako 35,8 milioiak 1999ko aurrekontuekin. Lanaren zuzendaritzari dagokionez, 1,9 milioi pezeta gastatuko da, horietatik 900.000 pezeta aurtengo aurrekontuen kargura eta gainerakoa heldu den urteko aurrekontuen kargura.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

DUHAU-ARANA
Kinkaileria
Karrika Nagusia • SENPERE
✆ 0559541044

Pierre GOÑI
Baratzea
SENPERE • ✆ 0559541303

Okindegia — Jatetxea
Uxoa
Polig. Ind. Ordoki — Tfn.: (948) 45 34 03 — 31713 ARIZKUN
Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!*

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580 939
ELIZONDO
UDAKO ARROPA
*Soinekoak, konjuntoak galtza eta faldekin, kamisetak, galtza bakeroak koloretan eta bainujantziak*
KONPLEMENTOAK
*Belarritakoak, koilareak, painueloak, gerrikoak...*
Ezkontzetarako oroigarriak egiten ditugu

## SENPERE





# 75.000 euskalzale bildu dire aurtengo Herri Urrats ospatzeko

Beti bezala besta xoragarria izan da lakuaren inguruan

FRANCK DOLOSOR

15. Herri Urrats bestak mugaz gaineko milaka euskalzale bildu ditu berriz ere. Aldarrikapen egunean, Ministerioarekin gertatzen ari den elkarrizketa salatu du Seaskak.

Euskaldunen sustengua biziki zabala gertatu bada ere, Ipar Euskal Herriko ikastolen beharrak aski inportantak dira oraino. Bigarren kolegioa ideki behar da, 300 haur baino gehiago ibilki baitire Kanboko Xalbador ikastegian eta laguntza emanen zaiote Lasa, Donapaleu, Izura, Hazparne eta Uztaritzeko ikastolei.

Bestaren alde ilunak, usaian bezala, 'muga' inguruan suertatu dire, kontrolak egin baitituzte. Biharamonean lan ainitz egin dute antolatzaileek eta 100 bat lagun elkartu dira garbiketa egunean.

Herri Urrats bestari buruzko erakusketa iragan da Oxtikenean. Hor hamabortz besten aipamena egin da, afitxa, argazki, kantu eta halakoekin.

Euskarari buruzko konferentzian jende guti, behar bada, lehen aldia baita, bainan solasaldia gustatu zaiote hurbildu direneri. Milesker parte hartzaileeri, Gazteriak erakundeko Gorka Torre eta EHE elkarteko Emilio Lopezi. Heldu den urtean ere gauza bera prestatuko da Oxtikenean, Herri Urrats kari.

### Helbarrungo herrixka senpertarrekin betetzen ari da

Olhagaraiko lurretan egin diren bizitegiak betetzen ari dira. Eraikuntza berria 'Helbarrungo herrixka' deitzen da eta 23 familietarik 17 hemengoak dire. Etxe berriaren izenak dioenaz, izen euskalduneri atxikiak dire: bainan nola deitzen zen lehengo denboretan 'Cherchebruit'? Eta SPUC nola deitu beharko ginuke eskuaraz?

Errepustak Oxtikenean hartuko ditugu.

## flash

**Amaia Zubiria kantariaren** 'Mami xuri' azken diskan Auxtin Zamoraren testu bat agertzen da. Kantariak idatzi baditu 11 kantu hamabigarrena senpertar idazleak asmatua du: 'Tanka eta tanka' deitzen da kantu hau.

**Senpereko TTIPI-TTAPA taldea** hilabetean behin biltzen da, hilabeteko lehen asteazkenean, 7,30etatik 9ak arte. Zuk ere parte hartu nahi baduzu berriak biltzen ala eskribatzen, ongi etorria izanen zare.

**Appel Detresse** behartsuak laguntzeko taldearen merke-saltzea izan da Elkartetxean. Elkartearen partez milesker laguntzaile eta erosle guzieri.

**Dantzari Ttiki** maiatzaren 8an gertatu da Baionan, aro ederrarekin, 2.000 gaztetxo bildu direlarik. 8 eta 15 urte arteko dantzariak biltzen dire urtean behin eta beti hor parte harzen dute herriko Zikirolatz taldeko partaideek. Esku zartak bildu zituzten dantzari trebe hauek.

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx
Kutxa
Kidetza berri bat!
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274Fax 0559203237



## SARA

# Orroit-harria ezarri dute Itsasun, Ipar Afrikan hil euskaldunentzat

### Trinketeko itzuligunetik Portuko bidegurutzera doan bidearen obrak hasi dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Istilu larrienak hamar bat urtez iragan ziren Algerian 1962a arte. Bainan anartean zenbat hil! Horien artean 101 euskaldunak ziren eta nola ez aipa gure haurridea, Bernard Echeveste Harantzetako semea. Maiatzaren 3an, igande euritsu batekin, euskaldun hauen oroitzapenetan Itsasun orroit-harri haundi bat ezarria izan da. Egun hortan estrenatua izan da eta izen guziak agertu dituzte.

Obra hau Mikel Duvert-ek asmatu du eta Kaikueneko Mizel Urbistondok zizelkatu du.



### Sarako Itzulia maiatzaren 31n

Bi urtetik behin Axuria elkarteak antolatzen duen Sarako Itzulia mendi ibilaldia Mendekoztez egunean iraganen da. Izen ematea goizeko 6,30etatik goiti egiten ahal da eta abiadak, 7ak eta 8ak artean izanen dira plazan. Ibilbidea ohikoa: Mendiondokoborda-Suhalmendi-Santinazioko lepoa-Korralehandi gaztelua-Iturriadarreta-Larrungo gaina-Urkilako lepoa-Lizuniagako lepoa-Ibantelli (argazkian)-Lizarrietako lepoa-Gaztainlepo-Irumuga-Atxuria (nahi duenak)-Ibaineta-Narkoenia-Behereko Menta-Gaineko Menta-Urtxola-Galzagorri-Apexen Menta-Iletegia-Xarbo erreka eta plaza.

### Dantzari Ttiki Baionan iragan zen

Ohi den bezala, Dantzari Ttiki maiatzaren 8an iragan da. Aurten Baionako Saint Leon Kirol zelaian iparraldeko bi mila haur bildu dira eta gure herritik Zazpiak Bat taldeko 40 bat dantzarik parte hartu dute.

### Saihesbidearen lehen urratsak

Herria saihesteko errepidearen obrak hasi dira eta Zelaietako aldean zubi bat egin dute. Oraino bada zer egin saihesbidea Trinketeko itzuligunetik Portuko bidegurutzeraino baitoa.

### Bi gaupasak giro ederrean

Lehen gaupasa apirilaren 30ean iragan zen eta eguraldia nahiko kaxkarra izanik ere milako bat gazte bildu zen.

Bigarrena, Herri Urrats mezperakoa baldintza ezin hobean joan zen. Lau mila bat jende elkarretaratu zen eta giroa eguraldiaren parekoa gertatu zen, ederra.

Antolatzaileek aldizkari hunen bitartez esker berezi bat eskeintzen dute gau horietan eta gau horien iragaiteko laguntza ekarri duten guzieri. Datorren urtera arte.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
Michel eta Kattin Guerendiain
Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA





BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 - IRURITA

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

## EZKONTZAK

**Miguel Angel Etxenike Urroz** eta **Mª Pilar Biguria Otermin**, Irurita eta Elizondokoa, apirilaren 25ean.
**Jose Miguel Gonzalez Iribarren** eta **Josune Galarregi Iturriria**, Elizondokoak, maiatzaren 2an.
**Luis Ucin Larrañaga** eta **Amaia Etxeberria Etxezarreta**, Donostia eta Urrestillakoa, Lekarozen, maiatzaren 9an.
**Jose Luis Pagadizabal Rodriguez** eta **Mª Gema Igarzabal Etxebide**, Oiartzun eta Lesakakoa, maiatzaren 2an.
**Jose Ramon Jimenez Tomasena** eta **Itziar Monsalvo Loiarte**, Goizueta eta Donostiakoa, maiatzaren 2an.
**Juan Antonio Etxebeste Ariztoi** eta **Mª Clara Minguez Fuentes**, Ituren eta Irungoa, maiatzaren 9an.

## JAIOTZAK

**Saioa Elizondo Urrutia**, Lekarozkoa, apirilaren 28an.
**Andrea Casares Arretxe**, Leitzakoa, maiatzaren 1ean.
**Aitziber Zabaleta Sukunza**, Leitzakoa, maiatzaren 6an.
**Ane Anso Loiarte**, Zubietakoa, apirilaren 8an.
**Ane Telletxea Iribarren**, Doneztebekoa, apirilaren 30ean.
**Beñat Erkizia Solana**, Berakoa, apirilaren 27an.
**Unai Olaziregi Urkiola**, Berakoa, apirilaren 29an.
**Pierre Berhau**, Sarakoa, apirilaren 30ean.
**Oihan Kanabal Etxarte**, Igantzikoa, maiatzaren 2an.
**Zumai Txoperena Eugi**, Igantzikoa, maiatzaren 7an.
**Elena Cédarry**, Senperekoa, apirilaren 5ean.
**Mari Elorri Jorajuria**, Senperekoa, apirilaren 6an.
**Peru Davant**, Senperekoa, apirilaren 10ean.
**Ana Sarria**, Senperekoa, apirilaren 23an.


**ZORIONAK!**
**Oparia ematan lehenak izan nahi dugu**



Haurra sortu eta berehala etorri Iruñeko Kutxara. Aldatzeko sakitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuez betea, emanen dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125


## HERIOTZAK

**Aurora Arrazuria Galindez**, Elizondon, apirilaren 28an, 81 urte.
**Benito Ballarena Goñi**, Elizondon, maiatzaren 1ean, 73 urte.
**Domingo Duhalde Iribarren**, Arizkungoa, maiatzaren 6an, 79 urte.
**Catalina Santesteban Ezkurra**, Zubietakoa, apirilaren 16an, 88 urte.
**Eugenio Etxeberria Telletxea**, Legasakoa, apirilaren 23an, 84 urte.
**Sebastian Danboriena Iraola**, Berakoa, maiatzaren 12an, 71 urte.
**Roger Lafitte**, Senperekoa, apirilaren 9an, 37 urte.




**SOULE**
**Hileta artea**
Tfnoak: 948 453444 • 908. 779903
**ARIZKUN**



**FOTO GOIKO**
Altzate 26
Tel.-Fax: 948630515
BERA



• Hileta artea

MARMOLES GRANITOS
**AMEZTI, S.A.L.**
**KALITATEA eta ESPERIENTZIA**
• Marmol eta granitoak
• Sukalde eta bainurako entzimerak
• Lanak orokorrean
Zaldubia Poligonoa • **IRURITA** • Tel. eta faxa: 948 45 22 00

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
**ESTHER FUNERARIA**
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

**24 orduko zerbitzua**
Eta Iruñean...
**IRACHE TANATORIOA**
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

DATUAK..........

❶ *Aimar Olaizola Goizuetako aurrelariak 18 urte bete ditu azaroaren 13an.*

❷ *ASPErekin hiru urteko kontrata sinatu eta gero apirilaren 12an debutatu zuen profesionaletan. Alberdirekin batera 15-22 galdu zuen Soroa eta Irigoienen aurka.*

❸ *Aste batzuk lehenago, afizionatutan, Espainiako txapeldun gelditu zen eskuz esku hogei urtez beheitiko mailan. Umore Ona taldearekin ere Nafarroako Klub arteko txapelketa eskuratu zuen.*

❹ *Zortzi urterekin hasi zen pilotan eta «9-10 urterekin kanpoan jokatzen hasia nintzen».*

TESTUA:
*AITOR AROZENA*
ARGAZKIA:
*PILI ZUGARRAMURDI*

**Aimar OLAIZOLA** *Goizuetako pilotaria*

# "Jokoan sartzeko koadro batzuk atzerago aritu behar dut orain"



«Entrenamenduak ez ditut aldatu, lehendik ere nahikoa entrenatzen diagu!»

Orain zazpi urte Goizuetako mutiko koxkor bat elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPAK. Aimar Olaizola pilotari gaztetxoak 12 urte bete berriak zituen eta dagoeneko hogeitabost txapel jantziak zituen. Orduaz geroztik, ia beste hainbat eskuratu ditu. *«Nik ez zioat horreri begiratzen, baina amak eramaten dik kontua eta 48 ba omen ditiat»*. Nafarroako Herriarteko txapelketa hiru aldiz, jubeniletan ETB-DV txapelketa, GRAVN, Elgeta, berriki afizionatutan irabazitako Nafarroa eta Espainiako txapelak eta orain, profesionaletarako pausua, afizionatutan partidu gutxi batzuk jokatuta. Hori dela eta, alde nabarmena somatu du: *«Pilotetan nabaritu diat diferentziarik haundiena, pisuagoak dituk, fuerteagoak... Atzelariek ez ditek pilota horrenbeste entregatzen eta aurrelari bezala jokoan sartzeko, koadro batzuk atzeragotik aritu behar haiz».*

**«ANAIA LEHENDIK PROFESIONAL IZATEA MESEDEGARRIA DUK»**

Aimarrek Olaizola II izena eramaten du elastikoan eta Asier anaia lehendik profesionala izatea mesedegarria gertatu zaiola uste du: *«Pilota ez da bakarrik kantxa gainean eta telebistan ikusten dena. Atzetik beste kontu asko zeudek eta horren berri barrenetik jakitea mesede duk. Anaiarekin konparatuko ote nauten eta horrelakoek, berriz ez didate kezkarik sortzen, oraindik gaztea nauk».*

Afizionatutan ikasi ezin izan duena profesional mailan ikasi beharko duela iruditzen zaio. *«Defentsa lanean hobetu behar dut, aurre hortan pilotak hartzen duen abiadurarekin defenditzea kosta egiten zait eta oraindik indar pixko bat hartzea ere falta zait. Bestalde, airez nahiko ongi sartzen naizela uste dut. Hiru urteotan ikastea beste helbururik ez dut».*

Entrenamenduetan ez du aldaketarik egin goizuetarrak. *«Lehendik ere nahikoa entrenatzen diagu! Egun batean laisterka eta bestean pilota tartekatzen dugu anaia eta biok. Astean behin pilota gogorra eta takoekin».*

Betidanik Retegi II gustatu zaio Aimarreri, baina azken aldian Titinen joku bizia eta ikusgarria ere gogoko du. Bere atzelarian gehien estimatzen duena berriz, *«asko jotzea eta pilota ez entregatzea da. Ahal bada beste aurrelariari airea kendu eta ni jokuan sartzeko aukera ematea, ez duk gutxi!».*

*"Hiru urteotan ikastea beste helbururik ez dut. Aurre hortan pilotak hartzen duen abiadurarekin defenditzea kosta egiten zait eta indar pixko bat hartzea espero dut"*

# Laxoa txapelketaren lehen itzulia aldrebestu du eguraldiak

■ Arraioz eta Doneztebek ez dute partidarik galdu

■ Iruritako plaza finalerako eta 100. urteurrenerako prestatzen ari dira

Udaberri honetan izan dugun eguraldi euritsuak ez dio mesederik egin hemeretzigarren edizioa betetzen duen Baztan-Errekako laxoa txapelketari. Lehen itzulian hainbat partidu gibeleratu behar izan dira eta Josu Prim antolatzaileak dioenez, *«talderen batek lau partidu jokatu gabe dituela kontuan hartzen badugu, bigarren itzuli honetan ez dute atsedena hartzeko astirik izanen»*.

Taldeei dagokienez, aurten Arraioz izaten ahal da Doneztebeko lehen taldearen nagusitasuna xehetzen ahal duen herria. *«Iaz kopa irabazi zuten eta aurten kontu handia izan beharko da beraiekin, arras indartsuak eta joko politarekin ikusten ditut»* dio Primek. Doneztebe A eta Arraioz dira, oraindik partidarik galdu ez dutenak eta Josuren ustez beraiek dira faborito nagusiak.

Ikusleek ohiko erantzuna eman dute orain arte. *«Hasierako partidak dira eta jendea hotz xamar dago. Finalerditarako sailkapena-eta jokoan hasten denean hasiko dira mugitzen»*.



**Eguraldiaren laguntza nahitaezkoa izanen da lehen itzulian gibeleratutako partidak errekuperatu ahal izateko**

**IRURITAKO PLAZA MOLDATZEN**

Jakina denez, aurten ehun urte bete dituen Iruritako plazan jokatuko da txapelketaren finala abuztuaren 2an. Hori dela eta moldaketak egiten ari dira. *«Alde batean dagoen horma haundiaren ondoan ormigoizko zola ginuen eta orai harlauza paratu dugu. Plazako bazterreko harrizko aulkiak txukuntzen aritu gara auzolanean eta horma berari ere harria atarako diogu, baina hori azken momentuan»*.

**Datozen jardunaldiak**

**98-V-24**

Doneztebe A-Oitz A (12)
Doneztebe B-Arraioz (12)
Oitz B -Doneztebe C (larunbatean, 5etan)
Irurita B-Irurita A (12)

**98-V-31**

Irurita A-Arraioz (12)
Doneztebe B-Doneztebe A (12)
Oitz A-Oitz B (larun, 5etan)
Doneztebe C-Irurita B (12)

# Bortzirietako futbito txapelketan izena emateko epea zabalik

■ Pilota goxoarekin jokatzen ari den lehen txapelketan bikote aunitz

Maiatzaren 25a bitartean zabalik egonen da Bortzirietako futbito txapelketan izena emateko epea. Horretarako, Lesakako Koxkilla edo Berako Errekalde ostatuetan apuntatzen ahal da, taldeko 4.000 pezeta ordainduz. Beti Gazteko areto-futboleko taldeak, Lesakako Udalaren laguntzaz antolatutako txapelketa honetan, talde bakoitzeko zortzi lagun apuntatzen ahal dira (4 federatu baino guttiago). Txapelketa ligaxka moduan jokatuko da, izena ematen duten talde kopuruaren arabera.

Bertzalde, jokatzen hasia da Beran, Bortzirietako I. pilota-goxo txapelketa herrikoia. Ustegabeko arrakasta izan du txapelketa honek eta 60 bikotetik goiti dira izena eman dutenak.

**BOTE pronton**

**Euskal Herriko sokatira txapelketa**

Aresok jantzi ditu 600 eta 640 kiloko Euskal Herriko txapelak. Espero bezala, Beti Gaztekoak izan dira kontrario haundienak eta bi finaletan, lehen tiraldian lesakarrak gailendu baziren ere, bigarrenean eta kitarakoan aresoarrak nagusitu ziren. Bai aresoarrek, baita lesakarrek ere, gainerako tiraldi guziak irabazi zituzten, bi pisu hauetan.

**Gure Txokoak maila galdu du**

Berako talde nagusiak erregionaleko 2. mailan jokatu beharko du datorren urtean. Ligako azken partiduan berdinketa lortu zuen etxetik kanpo, baina aitzinetik zoaien Landetxa taldeak ez zuen hutsik egin.

**Inaxio Perurena**

Iñaki Perurenaren semeak, marka berri bat ezarri zuen maiatzaren 10ean Lekunberrin, Leitzako Joantxenea baserriaren alde egindako jaialdian. 130 kiloko harri zilindrikoari hiru jasoaldi eman zizkion minutu bat eta hogei segundutan. Hori 14 urtetan!

**Sarako Itzulia**

Maiatzaren 31n buruko da Axuria elkarteak antolatutako Sarako Itzulia. Abiadak, goizeko 7ak eta 8ak artean izanen dira eta heltzeak arratsaldeko 4ak eta 8ak artean. Izen ematea goizeko 6,30etatik goiti.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KINTO BESTA

**BORTZIRIAK**

**Ekainaren 7an,** 48ko kintoen besta ospatuko da Etxalarko Beola Jatetxean. Apuntatu nahi duenak deitu ekainaren 3a baino lehen herri bakoitzeko arduradunari, edo 948 630 362 telefonora (Mª Karmen).

## KULTUR ASTEA

**SENPERE**

**Maiatzaren 29an,** Mado Jadaud-ekin eztabaida; "ttikitik haurra nola lagundu behar da arduradun eta autonomo izaten?", arratseko 8,30etatik goiti.

**Ekainaren 1ean,** "Bordaxuri" antzerki emanaldia.

**Ekainaren 2an,** haurrentzat jokoak pilota plazan eta ondotik krakada. 1,30etatik goiti.

**Kultur asteak** irauten duen denboran "Senpere ezagutzeko, senpertarrak ezagutu" erakusketa izanen da ikusgai Kultur Etxean.

## EGUNKARIAREN ASTEA

**BORTZIRIAK**

**Maitzaren 26an,** Peruri buruzko diaporama Etxalarko Eskola Zaharretan, 7,30etan.

**Maitzaren 27an,** "Txan handia" magia saioa Lesakako ikastolan.

**Maiatzaren 28an,** Mahaingurua: "Herritarren partehartzea komunikabideetan".

**Maitzaren 30ean,** Kantaldia Berako Kultur Etxean: Bitoitza Kthru, Petti, Ainhoa Merzero.

**Maiatzaren 31n,** Bertso saioa Igantzin.

**ttipi-ttapa TELEBISTA**



# TTIPI-TTAPA TELEBISTAK aurkezten du...

Arantzan, maiatzak 24, eguerdiko 12,30etan...

Ale honetan bertan irakur daitekeen bezalaxe, aurten Arantzan ospatuko da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen besta. Antolatzaileen gonbidapenari erantzunez, ez dugu aukera paregabe hau pasatzen utzi nahi izan, eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAren lehenengo aurkezpen ofiziala burutuko dugu igandean.

Beraz, UEMA Egunaren egitarauaren barrenean, eguerdiko 12,30ak aldera ikusgai izanen da ekitaldi hau, Arantzako Eskolako gimnasioan. Honetarako, antzerkia, musika eta irudiak nahasten dituen espektakulu labur bat prestatu dugu Berako Lamixine antzerki taldearen laguntzarekin.

Hala ere, trankil egon, Arantzan egotea posible ez duzuenok zuen herrian bertan ikusteko aukera izanen duzue eta. Heldu den astetik aitzinera aurkezpena herriz-herri egiteko asmoa dugu, arestian aipatutako espektakulua eta guzi.

## BASERRIA

### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.200 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 164 pta/kiloa.
- **Zerramak:** 90 pta./kiloa, bizirik.

### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 550 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 500 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 560 |
| 1.koa | 540 |
| 2.koa | 510 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 26.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 42.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 370 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

## ☞ DISKAK




**OSKORRI**

**«Oskorri & The Pub Ibiltaria II»**

ELKARLANEAN

laz «Oskorri & The Pub Ibiltaria I» lan bilduma argitaratu ondoren, Euskal Herriko kantu herrikoi eta ezagunak bildu, moldatu eta publikoaren parte hartzearekin zuzenean ematen jarraitzen du Oskorrik. Kantu hauek "popularizatzea" da kontzertu eta diska hauen azken helburua. Horretarako, zuzenean grabatutako saioetaz aparte, playbackaren formula ere erabili dute konpaktoan, nork bere etxean (edo nonhai) entsaia dezan.

18 kantu eder aurkezten dizkigu oraingoan Oskorrik, batzuk ezagunak eta besteak ez hainbeste, baina den-denak herriaren memorian bizi direnak. Hemendik aitzinera abesti herrikoiak berreskuratu eta zabaltzeko bide honetan segituko dutela dirudi, gainera.

JAKIN BEHARREKOAK

# ITV-a nekazal mundura zabaldu da



Nafarroako mendialdean abuztu aldera pasa beharko da ITV-a.

**A**urten, kotxeekin egiten dugun bezalaxe, nekazal tresneriak zorioneko ITV-a pasatzera eraman beharko dira Nafarroan. ITV horiek mugikorrak izanen dira, eta badirudi Nafarroako mendialdera abuztuan etorriko direla. Lehenengo kanpaina denez, ITV-a pasatzeko errextasunak jarriko omen dituzte, gaur egungo arazoak konpondu asmoz, hala nola, matrikulatu gabeko tresneria, etxean norberak egindakoa, etab...

Autopropultsatuak diren makinari guziek egin beharko dute, hau da, traktoreek, kosetxadoreek... Motokultoreak direnek, berriz, ez. Gainera, 750 Kg. baino gehiago pisatzen duten makinariak, eta erremolkea, enpakadora, edo dena delakoa arrastaka eramaki duten guziek pasa beharko dute. Zortzi urte baino gehiago duen makineriari bakarrik eginen zaio azterketa teknikoa, 16 urte bitartekoei bi urtetik bi urtera, eta oraindik zaharragoak direnei, urtero.

Frenoak, argiak, direkzioa, kabinaren seguritatea eta tresnaren identifikazioa (bastidore zenbakia, marka, tipoa...) aztertuko dituzte batez ere. Kontutan izan beharko da erremolkeetan baimendurik masa maximoa 750 Kg. baino gutxiago baldin bada estazionamenduko freno sistema nahitanahiezkoa izanen dela, eta masa maximoa 1.500 Kg.tik goitikoa bada, berriz, traktore kabinatik akzionatu daitekeen freno hidraulikoa behar duela. Arrastaka eramaten diren gainontzeko tresneriek ere, masa maximoa 3.000 Kg. baino gehiago badute freno hidrauliko hori beharko dute.

*Lehenengo kanpaina denez, ITV-a pasatzeko errextasunak jarriko omen dituzte.*

Errebisioan akats ttikiren bat harrapatuz gero, hurrengorako utziko dute, baina larriak badira 2 hilabeteren buruan konpondu beharko dira. Informazio gehiago 948 580 627 (Elizondoko UAGN) telefonoan eskatu, astearte goizetan 10etatik 1etara.

## LIBURUAK




**«Kilkirra eta roulottea»**
Joxemari ITURRALDE
EREIN

Ipar Ameriketatik etorritako gaztea da protagonista. Euskaldun jatorria duenez, Euskal Herria ezagutu nahi du. Bertako jendea eta bizimodua, batez ere, eta erabat identifikatzen da hemengo errealitatearekin. Franco hil zen garaian kokatua dago istorioa, bainan ez da eleberri historikoa. Gertakari konkretuak ez, baizik eta orduko giroa orohar isladatzen saiatzen da idazlea, bizipen ezberdinen hariari tira eginez. Liburua nahiko errealista da, tartean-tartean ironia pixar bat antzematen dela.
Erabiltzen duen hizkuntzak, bertzalde, irakurterreza eta aski arina bihurtzen du liburua. Dena den, eskerrak horri, liburuak 500 orrialdetik goiti izanik ez baitzen batere samurra izanen bertzenaz.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### MENDI BIZIKLETA

**GOIZUETA**

**Maiatzaren 31n** Mendi Bizikleta ibilbidea eginen da, goizeko 10etatik aitzin.

### KULTUR ASTEA

**LEITZA**

**Maiatzaren 29tik ekainaren 7ra** Ikus 21. orrialdea.

### KONTZERTUAK

**LEITZA**

**Maitzaren 23an,** KING MAFRUNDIk joko du Torrean, 12tan.

**ETXALAR**

**Maitzaren 23an,** ERASO Zarauzko rock taldeak joko du Herriko Ostatuan, 10etan.

### GAZTE JOKOAK

**BERA**

**Uztaileko** hondar aldera eginen dira aurten. Bitartean, antolatze komisioak osatu nahi dira. Zure laguntza emateko prest baldin bazaude deitu 948 631118 (Fernando) edo 948 630 789 (Joxelu) telefonoetara.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Maiatzaren 18tik 24rat** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza, Goizueta.

**Maiatzaren 25etik 31rat** Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizueta.

**Ekainaren 1etik 7rat** Arantza, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** *Hegoaldetik deitzeko Iparraldetik 00-34-* **948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Kanttonberri 3an 2. pisua salgai. 3 logela, egongela eta bainua. Kanpora ematen du. Igogailua badu. 10.800.000 Pta. ☎ 943 619 618 edo 943 630 771.

**BERA.** Kanttonberrin pisua salgai. 3 logela, egongela, trastelekua eta 2 bainu. ☎ 948 630995.

**BERA.** Pisua salgai Legia karrikan, oso polita. ☎ 948 451841.

**LEITZA.** Pisua salgai, Txoko tabernaren gainean. ☎ 948 510 054..

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**Borda** erosiko nuke, edozein egoeratan. ☎ 948 451 841.

**Etxea, baserria edo borda** erosiko nuke Bera, Etxalar, Arantza edo Sunbillan. ☎ 948 306 502 (Lurdes).

**Baserria** edo etxea erosiko genuke, lur-eremu haundi edo ttikiarekin, ez du inporta. ☎ 948 451841.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**LEITZA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 510 083.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**IRUÑEA.** Neska langile bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 451658 (gauetan).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

Martxan dagoen komertzioa salgai BERAn.
56 m²ko denda eta 75m²ko gibelaldea. Guztiz ekipatua.
ROMANO DEKORAZIOA
Legia, 1 ✆ 948-631137/630941

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**Baserri** baten beheak errentan emanen nituzke, almazen edo tailer txiki bat jartzeko. ☎ 948 514 308 (gauez).

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALGAI

**LESAKA.** Koxkonta inguruan lur-eremua salgai. Hagitz leku politean. Behekomartinekobordaren azpikaldean. ☎ 948 637537 (gauetan, Pedro Zubiria).

**LESAKA.** Nabaz auzoan, 5.500 m²ko lur-eremua salgai. Ura eta argia hartzeko arazorik ez. Etxea egiten ahal da. Prezio onean. ☎ 948637912.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

ARANTZA ZVRGINDEGIA
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

**Aulkiak** konpontzen dira. ☎ 948 592136 (Jesusa).

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Etxeko lanak** egiten edo haurrak zaintzen lan eginen nuke. ☎ 948 637 885.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Interna moduan** aritzeko neska bat behar dugu Donostian. Arratsaldeak libre. ☎ 943 322065 (10etatik 1etara eta 4etatik 8etara), 948 631 174 (asteburuetan).

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Nissan Patrol** motza salgai, lau zilindrokoa. ☎ 948 460323.

**Nissan 100 NX** salgai, NA-AG. Deportibo antzekoa. ☎ 948 634 113 (eguerditan).

**Opel Corsa** 1.4i, Sport, 96 zaldi, 73.000 km, NA-AJ, irratia. 830.000 Pta. ☎ 948 630 047 (Josema, gauez).

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

Audi SAMPI ARAGON
Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.
✆ 948 450 354 • DONEZTEBE

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak
Iturlandeta, 9 • ✆ 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Ford Fiesta XR2, Corsa D, Astra D, Peugeot 309 D, 505D merkea, Cherokee TD 5 atekoa, Vectra GT, Terrano II.
Suzukiak: Vitara eta Samurai.

NISSAN BERABI tailerrak
✆ 948631445•BERA
Bigarren eskuko kotxeak:
Nissan Trade 2.0 chasisa
Nissan Primera 2d.LX, NA-AK
Opel Corsa
Peugeot 309 GR - NA-T, polita

## ANIMALIAK

### 501 EMATEKO

**Bi zakurkume** setter-euskaldunak eta bi katakume oparituko nituzke. ☎ 948 627 618.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

**Ahari** mutur gorria salgai, bi urtekoa. ☎ 948 510517.

**Txekor bat** blonda arrazakoa salgai, 2 urte terdikoa eta zezengairako egokia. ☎ 948 631098.

**Bi aker** gazte salgai Leitzan. ☎ 948 510503.

**Ahari mutur-gorria** salgai, bi urtekoa. ☎ 948 510517.

**Boxer** txakurkumeak salgai, apirilaren 26an jaioak. ☎ 908 390267 edo 948 450699.

**Katukume pertsiarra** erosiko nuke. ☎ 948 450 936.

## ANIMALIAK

### 603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 631362 • Legia 13 • BERA
Txepetxa

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Bi ohatze turko** (jergoi tapizatuarekin eta lau hankekin) salgai, oso egoera onean. ☎ 948 634196.

**Kotxe-kapota-aulkia** 'Bebe Confort' salgai, egoera onean. 15.000 pezeta eta osagarriak erregalatzen dire. ☎ 943 513095.

**Kotxearentzat emisora** salgai, 'President Jack' markakoa eta 5 urteko lizentzia ordainduarekin. Prezioa: 15.000 pta. ☎ 948 510169 (gaueko 8etatik 10etara, Jose Mari).

**Txapa** galbanizatua salgai. 4,5 eta 5 metroko txapa lehorra egiteko. ☎ 948 393180 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean).

**Traktore txiki bat** erosiko genuke. ☎ 948 393 131 (gauez).

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Iturengo Itziar Bazterrika**ri: zorionak maiatzaren 16an 5 urte bete dituelako. Bere lehengusu eta lehengusinaren partetik zorionak. Beti bezain polita segi dezala, bere lehengusina Iruneren partetik.

Zorionak Sunbillako **Maitane Eizagirre**ri 13 urte egiten dituelako, mutiko baten partetik. Musu haundi bat.

**Gartzaingo** Arantxa Eskuderori: zurekin maitemindurik nago.

**Josune Anduezari:** Sunbildar neska 'ero' horreri zorionak. Kontuz larunbatean besta haundia egin gabe! Zuk ezagutzen duzun baten partez!

Oizko **Nekane Ariztegi**ri: ongi pasa ezazu Mexikoko lurralde haietan, kontuz janariarekin eta jo ta ke hango mutilekin. Ez atzendu gutaz, eta gutun bat bidali mesedez. Zure lagunak: Esther, Izaskun eta Ainhoa.

**Azkenean** aurkitu dugu Alzheimerraren aurkako antidotoa. Badakigu zurekin ez duela funtzionatuko baina zu segi horrela. Beti bezain ero. *Sikopata* eta *konejilla de indias.*

Aupa **Blanqui**: ailegatu da zure urtebetetze eguna, ongi pasatu eta segi orain arte bezala igande goizetan mezara eta kafea hartzera joanaz. Zure koadrilako lagunen partetik. Zorionak.

**Zorionak** Lopeko Maiteri, zure urtebetetze egunean, ongi pasatu, eta segi Zubietara bisitak egiten. Zure lagunaren partetik (maiatzak 15) eta Edurneri zorionak atzerapen pixka batekin.

Zorionak Leitzan bizi den **Anari**: ongi pasa ezazu, ea izaten dugun zure postre goxo bat jateko aukera. Hortxe izanen gara.

## URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Trini Solana** beratarrak urteak bete ditu. Zorionak bere familiaren partetik.



**Justo Eskudero**k urteak beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak bere familiaren partetik.



Mugairiko **Juan Jose Zelaieta** eta Iruñeako **Edurne**k maiatzaren 16an egun berezia ospatu dute. Zorionak Leitzako lagunen partetik.



**Joanes Irigoien Perez** etxalartarrak 12 urte beteko ditu maiatzaren 21ean. Zorionak familiaren partetik.



**Ioar Oteiza Goienetxe** lesakarrak 10 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak familiaren partetik.



**Julen Ceballos Irujo** leitzarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 3an. Aupa matrako! Zorionak eta muxu bat Garaziren partetik.



**Garazi Erbiti Goienetxe** leitzarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat gurasoen partetik.



**Garazi Konde Orube**k 3 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Zorionak etxeko sorgin ttikiari denon partetik.



**Maite Migeltorena** donamariarrak 13 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak aita eta amaren partetik. Muxu haundi bat.



**Mikel Arregi Mindegia** donamariarrak 13 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak guraso eta familiaren partetik.



**Itsaso** eta **Irati Mindegia Mitxelena** itturendarrek urtea beteko dute maiatzaren 24an. Zorionak bere gurasoen partetik.



**Raul Garate Arrieta** elizondoarrari zorionak maiatzaren 22an 17 urte beteko dituelako. Guraso eta anaiaren partetik.



**Maria Urrutia** elizondarrak 86 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Zorionak familia osoaren eta bereziki Aneren partetik. Muxu bat.



**Maialen Elizalde**ri zorionak maiatzaren 20ean bi urte bete dituelako. Muxu bat, atautxi-amatxi, osaba, izeba eta lehengusua.



Zorionak Galizian bizi diren **Luis eta Josune** senar-emazteei, ekainaren 3an 27 eta 25 urte beteko dituztelako. Aunitz urtez!



**Ion Aldabe Erdozain**ek urtea bete du maiatzaren 21ean. Urte aunitzez Doneztebe eta Hernaniko familien partetik.



Azpilkuetako **Itziar**i zorionak eta musu haundi bat zure urtebetetzean. Maiatzak 10ean bete ditu urteak.



**Begoña Alzugarai** lesakarrak urteak bete ditu maiatzaren 11n. Zorionak neska. Ondo pasau, asko ligau, gutxi gastau. Zure koadrilla.



**Nekane Migeltorena** berroetarrari zorionak maiatzaren 29an urteak beteko dituelakoz. Familiaren partetik.



Berroetako **Nekane**ri zorionak maiatzaren 29an 19 urte eginen dituelakoz. Segi beti bezain jatorra izaten. Gu.



Narbarteko **Asier Salaberri**ri, zorionak bere 19. urtebetetzean. Ahal den hoberen ospatuko dugu. Muxu bero bat. Nekane.



**Imanol eta Olatzek** 9 eta 3 urte bete dituzte maiatzaren 6 eta ekainaren 15ean. Zorionak bere guraso eta familiaren partetik.



Senpereko **Franck Dolosor**eri zorionak 21 urte betetzen dituelako. Musuak familiaren partez. Aupa gazte.



**Michèle Omnés** senpertarrak urteak bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta bi muxu Christianen partez.



**Aintzane Mendiburu** senpertarrari zorionak bere kusinen partez, urte betetzea ospatu duelakoz.



**Lolita Ladera** eta **Jaione Etxabe**k urteak betetzen dituzte maiatzaren 24 eta 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



**Mittelena Mattunbari** zorionak eta aunitz urtez.

# URTEBETETZEAK

**Sail hau debaldekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Bittor eta Garaile Zelaieta**k maiatzaren 22 eta 28an beteko dituzte urteak. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partetik. Trankil Bittor, ez dira hainbeste eta.

**Josu Taberna Telletxea** igantziarrak 10 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak familia guziaren partetik. Musu haundi bat.

**Julen Palenzuela Etxepare** lesakarrak urtea beteko du apirilaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat.

**Jose Antonio Miguelena Ordoki**k 13 urte bete ditu maiatzaren 10ean. Zorionak familiaren partetik.

Azpilkuetako **Itziar Azkarraga**k maiatzaren 10ean bete ditu urteak. Zorionak eta musu bat.

**Txarli Duarte Hueso** lesakarrak 17 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Muxu haundi bat familiaren eta Unaien partetik.

**Emilio Yepes Zamorano**k 57 urte beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak Alex, Ander eta Beñaten partetik.

**Virginia Etxepare Trigueros** lesakarrak 10 urte bete ditu maiatzaren 18an. **Naiara Trigueros Tomasena** beratarrak 7 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak neskatxak Trigueros familiaren partetik.



**Rafael Etxeberria (Rafi):** Zorionak zure 29. urtebetetzean (ekainak 4). Ongi pasa eta kontuz rubiekin eta edariarekin.

Sunbillako **Josune Anduezari** zorionak maiatzaren 22an 18 urte beteko dituelako. Txanpainaren zain egonen gara. AE, ME, E... beratarrak

**Ana Isabel eta Silvia Telletxea Iraola** aranztarrek martxoaren 16an 6 urte eta maiatzaren 3an 4 urte bete dituzte. Zorionak eta familia guziaren partetik muxu haundi bat.

**Ainhoa Larretxea Agirre** beratarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat aitta eta amaren partetik.

Zorionak Lekarozko **Jagoba Ariztegi** maiatzaren 14an urtea bete duelako. Muxu haundi bat bere familiaren partetik.

**Joseba Aldabe Etxeberria** igantziarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 19an. Aunitz urtez Oihana eta atta-amaren partetik.

**Milagros Lujanbio** goizuetarrak maiatzaren 20an bete ditu urteak. Zorionak amona! Zerbait prestatu.

**Joxe Mª Makazaga** goizuetarrak maiatzaren 23an urteak eginen ditu. Zorionak osaba eta muxu bat.

**Haizea Otermin Zabaleta** elizondarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat. Aita, ama eta Oihana.



**Adriana Mitxeo Zozaia** doneztebarrak 2 urte beteko ditu ekainaren 5ean. Zorionak zure osaben eta lehengusuaren partetik.
**Jon Zozaia Eskudero** goizuetarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak zure familiaren partetik.

**Lurdes Perurena Eskuderori** zorionak bere urtebetetzean. Lagun haundi baten partetik.

**Naiara Saldias Salaberri** iturendarrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak Argi, Agurne eta Sararen partetik.

**Jon Perurena Labaien** leitzarrak urtea beteko du maiatzaren 31n. Zorionak familiaren partetik.

Zorionak Sunbillako **Andueirari** maiatzaren 22an 18 urte bete dituelako. *Ovejita, Pika* eta *Xantelen* partetik.

Berako **Xanteli**: zorionak ekainaren 3an 18 urte beteko dituelako. Ron tragoen esperoan gaude. *Anduera, Pika* eta *Ovejitaren* partetik.

Zorionak **Idoia Endarari** ekainaren 3an 18 urte beteko dituelako. Zure lagunak.

**Josune Anduezari** zorionak maiatzaren 22an 18 urte beteko dituelako. Bi muxu haundi. M.Z.ren partetik.

Zubietako **Blankiri** zorionak maiatzaren 22an urteak beteko dituelako. Zure lagunen partetik. Txanpain botila hartuko dugu elkarrekin.



Zorionak Ibarrako **Elixabet Arizaleta Arburuari**. 3 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Hiru musu Maite, Julen eta Pauloren partetik.

**Patxi Olazar Ezkurra** doneztebarrak 15 urte beteko ditu maiatzaren 22an. Zorionak eta musu bat. Emilio, Josetxo, Amaia eta Elena.

Errenteriko**Maite**k maiatzaren 15ean urteak bete ditu. Zorionak eta festa gutxi egin patxaranarekin. Zubietako lagun onenen partetik.

**Ioritz Kañamares Bertiz** iruñearrak 5 urte bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak bere familiaren partetik. Muxu haundi bat.

**Ainhoa Uranga Larralde** hondarribitarrak 11 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak Berako familiaren partetik. Bereziki aitatxik.

**Patxi Bergara** senpertarrak hamaika urtekari. Zorionak Nahia bere arrebaren partetik.

**Olaia Salaberria Larrarte** goizuetarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Zorionak bere gurasoen partetik.

Zorionak **Alzheimer!** zure klasekoen partetik. Ongi pasa maiatzaren 22an eta guri gonbidatu.

**Aintzane Artola**k 11 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Aunitz urtez Berako familiaren eta amatxi eta atautxi ttikien partetik.

**Jesus Mari Telletxea**k urteak beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak zure emazte eta alabaren partetik.



**Jabier Maia Sadabari** zorionak apirilaren 26an 3 urte bete dituelako. Familiaren partetik.

**Markel Maia Sadabari** zorionak apirilaren 29an 7 urte bete dituelako. Familiaren partetik.

**Unai Gurrutxaga Errandonea** lesakarrak maiatzaren 29an 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.

**Josu Oiartzabal Larralde** lesakarrak maiatzaren 18an bete ditu 9 urte. Zorionak familiaren partetik.

**Ane Oiartzabal Larralde** lesakarrak maiatzak 29an 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.

**Axun Zabaleta** leitzarrak urteak bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak eta muxu bat lehengusu Jon eta Iñakiren partetik.

**Xabier Iparragirre Zabaleta** leitzarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 20an. Urte askoz bere familiaren partetik.

**Jaione Agerre Etxalar** almandoztarrak 4 urte bete ditu maitzaren 18an. Zorionak bere familiaren partetik.

**Beñat Mitxelena Danboriena** aranztarrak 11 urte beteko ditu maiatzak 22an. Zorionak familia guziaren partetik.

**Aintzane Eskudero**k 16 urte beteko ditu ekainaren 6an. Zorionak bere familiaren eta baitez ere Eiderren partetik.


Juan Larregi
«BITXO»
Santiago, 10 • 948 580 898 • ELIZONDO
• UDABERRI-UDAko promozioak
• HUSQVARNA, STYL... eta marka guziak
Belarra moztekoak: elektrikoak eta gasolinazkoak. 39.000 Ptatik goiti.
Hesi moztekoak
Desbrozadorak: 40.000 Ptatik goiti.
Traktoreak eta etxe inguruak garbitzeko ur-presioneko makinak.


LIGIER
AUTOMOBILES
Ligier Ambra berria
• Auto karnetarik gabe
• 10 egunetan eskuratzeko moduan
Hegoaldean homologatuak
ETCHEGARAY GARAJEA
Baiona/Kanbo bidean
© 07-33-5-59 93 04 37
LARRESORO

# V GARAGARDO BESTA
# FERÍA DE LA CERVEZA

## IRURITA EKAINA 6 JUNIO

ÑACO GOÑI Y LOS BLUESCAVIDAS
WICHITA
THALIUM DL
SUTAGAR
BARON ROJO
KTULU
KOMANDO MORILES
DJ' GASTON

SARRERA
ENTRADA 2000 PTAS

ORDU HASIERA
HORA COMIENZO 18:00 H

ANTOLATZAILEA: IRURITAKO GAZTEA

LAGUNTZAILEAK: XORROXIN IRRATI
BAZTANGO UDAL
ttipi-ttapa


**KELER**

**Zaporearen indarra**